DUINTASUNEZ

Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

pbi

DUINTASUNEZ

Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

pbi Brigadas Internacionales de Paz

Eskerrak: Kolonbiako PBI, Guatemalako PBI, Hondurasko PBI, Mexikoko PBI

Argitalpen honetan ageri diren iritziak eta usteak ez dira ezinbestean
Nazioarteko Bake Brigaden iritziak, ezta haien finantzatzaileenak ere

Egilea: Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)
Berrikuspenak: Jon Barandiaran, Susana Fernandez, Alexandra Gutierrez, Ruben Mantecon, Miriam Garcia
Transkribapenak: Virginia Francisco
Espainiako Estatuko PBIren elkarrizketak: Miguel Sanguesa
Soineko zuria: Gidoia: Oscar Pantoja / Irudiak: Maria Fernanda Lesmes B.
Editatzailea eta banatzailea: Espainiako Estatuko PBI
Diseinua eta maketazioa: porENDE estudio grafikoa
Inprimaketa: Génesis digital
Foto portada: La Puya. Foto: PBI Guatemala, 2014
Lege gordailua: SA 257-2017

Brigadas Internacionales de Paz

Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) gobernuz kanpoko erakundea da, nazioartekoa eta 35 urte baino gehiagoko eskarmentua duena giza eskubideak babesten eta gatazketako eta gatazken ondoko bake-eremuak sortzen.

Gaur egun, PBIk taldeak dauzka lekuan bertan Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen, Mexikon, Kenian, Indonesian eta Nepalen.

6
Editoriala

10
Gladys Lanzaren eta Hondurasko emakume defendatzaile nekaezinen omenaldia

14
Elkarrizketa Andrea Torresi

20
Soineko zuria
Nydia Erika Bautistaren oroitzapenetan, 1955 – 1987

36
Elkarrizketa Dina Mezari

40
Elkarrizketa Yesica Sanchezi

48
Lurra: emakumeak, ahanzturarik handiena jasan dutenak

56
Giza eskubideen emakume defendatzaileak babesteko sareak ehuntzen

66
Ondorioak eta gomendioak

Editoriala

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEK munduko eskualde guztietan dituzte eraso arriskuak beren eskubideen eta beren komunitateenen defentsa eta sustapena dela medio. Azken Urteko Txostenean, Amnesty Internationalek giza eskubideen defendatzaileak hil izana dokumentatu du 22 herrialdetan, zergatik eta errotuta dauden interes ekonomikoak zalantzan jartzeagatik, gutxiengoan direnak eta komunitate txikiak defendatzeagatik eta beren bidean aurkitu ohi dituzten trabei eta emakumeen eta LGBTI pertsonen eskubideak urratzen dituztenei aurre egiteagatik[1].

Ikuspegi geografiko batetik, fokua Latinoamerikan jartzen badugu, Front Line Defendersen azken txostenean datorrenez, giza eskubideen 217 defendatzaile hil zituzten 2016an. Mundu osoa kontuan hartuta, erakundeari jakinarazitako hilketa guztien hiru laurden baino gehiago da kopuru hori. Horietatik, 156 PBI ari den lau herrialdetan hil zituzten: Kolonbian (85), Hondurasen (33), Mexikon (26) eta Guatemalan (12); kopuru hori da eskualdean hil dituzten defendatzaileen %72[2].

Kontuan hartu behar da Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon giza eskubideak defendatzen ari direnek oldarraldiak, mehatxuak eta kriminalizazioa jaso ez ezik hiltzeko arriskua ere izanik egoera are okerragoa dela defendatzaileok emakumeak badira. Izanez ere, emakumeek giza eskubideak defendatzen dituztenean, aurre egin behar izaten diete emakumeen eredu hegemonikoak ezartzen dituzten arau kulturalei, erlijiosoei, sozialei eta, are, legalei, zeren eta gizarte patriarkaletan emakumeek rol pasiboa jokatu behar dute[3].

Giza eskubideen emakume defendatzaileak, banaka edo elkarteetan, lanean aritzen dira egunero, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko, berdintasuna eta justizia lortzeko eta bakea eraikitzeko. Hala ere, bereizkeriari aurre egin behar izaten diete beren lanean, eta orobat indarkeriari, zigorgabetasunari eta eskubide urraketei eta, askotan, erasoak jasaten dituzte beren izaeragatik hutsagatik, hau da, emakumeak izan eta giza eskubideen defentsan aritzeagatik[4].

Emakumeek jasaten duten egoera guztiz zaurgarri honi aurre egiteko, azken hamarkadetan nazioarteko komunitatea mekanismo eta tresna sail batez hornitu da, hasi 1979ko Emakumeen Aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Hitzarmenetik (CEDAW), segi 2000ko NBEren Segurtasun Kontseiluaren

1 Amnesty International: Amnesty Internationalen 2016/17 Urteko Txostena, 2017ko otsailaren 22an
https://www.amnesty.org/es/latest/news/2017/02/amnesty-international-annual-report-201617

2 Front Line Defenders: 2016an arriskuan izan diren giza eskubideen defendatzaileen gaineko urteko txostena, 2017ko urtarrilaren 3a
https://www.frontlinedefenders.org/es/resource-publication/annual-report-human-rights-defenders-risk-2016

3 Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimena: Emakume defendatzaileek Erdialdeko Amerikan jasaten dituzten erasoen gaineko 2012-2014 Txostena
http://im-defensoras.org/wp-content/uploads/2016/04/283951300-Informe-2012-2014-de-Agresiones-contra-Defensoras-de-DDHH-en-Mesoamerica.pdf

4 Asia Pacific Forum on Women, Law and Development (APWLD), *En Defensa de las Mujeres que Defienden los Derechos: Una Guía para Defensoras de Derechos Humanos*, 2007.

Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenarekin eta buka NBEren giza eskubideen defendatzaileak babesteari buruzko 2013ko Batzar Nagusiko Ebazpenarekin. Nabarmentzekoa da horiek denak emakumeen eta feministen erakundeek egindako lan gogorrarekin lortu zirela; haiei esker behartu baitira estatuak eta nazioarteko erakundeak beren ardura hartu eta arazoari aurre egitera.

Ahalegin horiek guztiak eginda ere, kezkatzekoa da oraindik nola dagoen kontua eta larria da ikustea nola dauden giza eskubideak sustatzen eta defendatzen dituzten emakumeak gatazka edo gatazka-ondoko guneetan. Kolonbian, Somos Defensores Programak duen Erasoen inguruko Informazio Sistemaren zenbaketaren arabera,[5] 2016an 155 aldiz eraso zieten emakume defendatzaileei, eta horietatik bederatzitan hilketak izan ziren. Gainera, nabarmentzekoa da, zenbait urte igaro badira ere, beste behin izan dela emakume defendatzaile baten aurkako sexu-indarkeria kasu bat. Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenak txosten batean dakarrenez,[6] 2012 eta 2014 artean, 1.688 aldiz eraso zieten giza eskubideen emakume defendatzaileei El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon, eta, hala, %45,7 igo da kopurua. Gainera, erasoen %37tan genero osagaiak identifikatu ziren. Era berean, 2012 eta 2016 artean, giza eskubideen 42 defendatzaileren hilketak erregistratu zituzten, eta kasu horietatik gehienetan ez da zigorrik izan.[7]

IM-Defensorasen txosten horretan bertan nabarmentzen denez, lurraren eta lurraldearen emakume defendatzaileek jasaten dituzten eraso gehien; guztizkoen %38. Global Witnessek orain berriki atera duen txosten batean, 123 defendatzaile hil zituzten Hondurasen, «lurra beretu eta ingurumena hondatzen duten enpresei aurre egiteagatik»[8]. Berta Caceres lider indigena eta giza eskubideen defendatzailea hil izanak —2016ko martxoaren 3an— alarma larria piztu du mundu osoan megaproiektuak dituzten komunitateetan lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzen dituztenentzat.

Gauza horiek ikusita, emakumezkoen erakundeek eta giza eskubideen defendatzaileek ekimen eta sare handiak sortu dituzte kontu horri aurre egiteko. Horien artean, nabarmentzekoa da Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen

5 IM-Defensoras: PRONUNCIAMIENTO #DefendamosAlasDefensoras por un mundo libre, igualitario y justo para todas las personas y los pueblos, 2016ko azaroaren 29a
http://im-defensoras.org/2016/11/pronunciamiento-im-defensoras-29-noviembre-2016-dia-internacional-de-las-defensoras-de-ddhh/

6 Giza Eskubideen Defendatzaileen kontrako Erasoei buruzko Informazio Sistema —Somos Defensores - giza eskubideen defendatzaileak babesteko Gobernuz Kanpoko Programarena—
http://somosdefensores.org/attachments/article/144/Contra%20las%20cuerdas.%20Informe%20Anual%20Espa%C3%B1ol%20220217847.pdf

7 IM-Defensoras: op.cit.

8 Global Witness: HONDURAS: EL PAÍS MÁS PELIGROSO DEL MUNDO PARA EL ACTIVISMO AMBIENTAL
https://www.globalwitness.org/sv/campaigns/environmental-activists/honduras-el-pa%C3%ADs-m%C3%A1s-peligroso-del-mundo-para-el-activismo-ambiental/

Nazioarteko Koalizioa, baliabideen, gertaeren, defentsa-bulegoen eta sustapenen sare gisa eratua, mundu osoan giza eskubideak defendatzen aritzen diren emakumeak babesteko helburuz. Latinoamerikan, IM-Defensoras erakundeak genero ikuspegia duen babes eredu bat bultzatzen dihardu Erdialdeko Amerikan: emakume defendatzaileen sareak eta artikulazioak eratzen eta laguntzen ditu, eskualde hartan izaten diren erasoak prebenitzeko eta ez ugaritzeko.

Nazioarteko Bake Brigadetan gabiltzanok hogeita hamar urte baino gehiago daramatzagu giza eskubideak defendatzen dituzten aktibistak babesten. Azken urteetan, bereziki ari gara azpimarratzen emakume defendatzaileen egoera, saiatzeko erantzun bat ematen, bere kide gizonekiko bestelako baldintza eta jarreretara egokitua. 2010ean, argitalpen bat egin genuen («Defensoras de derechos humanos bajo amenaza») eta 2015ean, berriz, aldizkari bat abiatu («Rostros de mujer»). Gainera, 2015etik koordinazio lan estua dugu zenbait erakunderekin: IM-Defensoras, Jass Asociadas por lo Justo, Calala Fondo de Mujeres eta Front Line Defenders. Horiek denek elkarrekin, sentsibilizazio, komunikazio eta politikan eragiteko kanpainak egin ditugu; nabarmentzekoa da orain dela gutxi nazioarteko mintegi bat antolatu dugula: «Tejiendo redes para la protección de mujeres defensoras de derechos humanos. El marco "Mujer, Paz y Seguridad" y otros mecanismos de protección».

Argitalpen honekin, jarraipena eman nahi diogu ildo horretan abiatua den lanari. Omenaldi bat eginez hasi genuen, Gladis Lanza berriki desagertuari eta Hondurasko emakume defendatzaile nekaezinei egindako omenaldia. Ondoren, tokian-tokian laguntzen ditugun defendatzaileen lana ikusarazi genuen, elkarrizketak eginda Andrea Torresi, Dina Mezari eta Yesica Sanchezi. Orobat aztertu genuen emakumeek nolako diskriminazioa jasaten duten Guatemalan lurra eskuratzeko orduan, Guatemalako zenbait defendatzaileren lekukotasunak agertuta, hala nola Telma Iris Perezenak eta Maria Corina Ramirezenak. Komiki bat argitaratu genuen Nydia Erika Bautistaren oroitzapenetan, «El vestido blanco». Bestalde, arestian aipatu dugun emakume defendatzaileei buruzko nazioarteko mintegiaren edukiak lantzen dituen artikulu bat erantsi dugu. Eta, azkenik, zenbait ondorio eta gomendio eman ditugu.

Gladys Lanzaren eta hondurasko emakume defendatzaile nekaezinen omenaldia

AURTENGO IRAILEAN, Hondurasko PBIk esperientzia hits bat izan zuen, giza eskubideen emakume defendatzaile historiko eta handi bat zendu baitzen: Gladys Lanza Ochoa, Visitacion Padilla Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimenduko koordinatzailea, 2015ean PBIk lagundua.

Gladysek ibilbide miresgarria egin zuen Hondurasen giza eskubideen defendatzaile gisan. Hark berak esaten zuen lau urte zituenean etxetik alde egin ohi zuela manifestazioetarako joateko. 70eko hamarkadan, ENEErekin (Empresa Nacional de Energia Electrica) hasi zen lanean, eta han ikusi zuen sindikalista bokazioa zuela, enpresa hartako langileen sindikatuan hasi baitzen, STENEE. Denbora hartan, STENEE zen herrialdeko sindikaturik handitxoenetako bat, eta gizonez betea zegoen. Hala ere, espiritu borrokalaria izan du betidanik, eta erantzukizunak hartzen hasi zen sindikatuko presidente egin zuten arte[9].

> «80ko hamarkadan hasi zen segurtasun nazionalaren doktrinarena; horren ondorioz, aurre egin behar izan nien sindikatuen mugimendua zapaltzera etortzen ziren polizia indarrei. Baita bizia ere defendatu behar izaten genuen; horrelakoa zen garai hura, beti jazarriak ginen, beldurrez egoten ginen; atzetik izaten genituen, begira, eta gauza asko gainditu behar izan genituen beldurrarekin batera», esan zuen Lanzak Conexihon hedabidearentzat eginiko elkarrizketa batean 2013an[10]».

Hamarraldi hartan, Gladys atzeman egiten zuten maiz, eta torturatu eta mehatxatu egiten zuten. Jazarpen gogorrak ikusten zituenez, ezkutuan bizi izan zen urtebetez. 80ko hamarraldiaren azken aldera, bonba bat lehertu zen haren etxean, eta zauritua gelditu zen. Eraikina, berriz, hondatua. Baina, hala eta guztiz, ez zen gelditu ENEEk pribatizatzearen kontra eta lan munduko justiziaren alde borrokatzetik.

Jende mordo bat enpresatik kaleratu zutenean, Gladysek ere alde egin behar izan zuen, eta orduan, Visitación Padilla Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimenduan sartu zen; dena den, lehenagotik ere bazuen harremana haiekin. Azken hogei urteetan, emakumeen eskubideen alde borrokatu zen Gladys etsirik hartu gabe, eta ezinbestekoa izan zen herrialdean nahitaezko zerbitzu militarra ken zezaten.

> «Emakumeei hizketan entzute hutsarekin, bizia zeinen ankerra izan den guretzat ikusita, badago aurrera zertan jarraitua. Hau bukatzen ez den borroka da, bai, baina haurtxo nintzenetik ikasi nuen oroz gain gauza baten alde egin beharra dagoela: justizia. Hori da inportanteena», esan zion Lanzak Cimac Noticias hedabideari 2013an[11]».

Urte hauetan guztietan, mehatxu asko egin izan dizkiote defendatzaileari, eta jazarria izan da bere lanagatik. Haatik, ez zen haren konpromisoa apaldu, eta bere kausen alde jardun zen tinko eta sendo; esaterako, etxeko indarkeria kasu ugarietan eta emakumeen hilketetan borrokatu zen, eta, oro har, Hondurasko emakumeen

9 «Gladys Lanza: mi vida ha sido una constante metamorfosis», *Conexihon*, 2013ko urtarrilaren 24a.

10 Id.

11 «Aún a costa de su vida, Gladys Lanza mantiene su lucha feminista», *CIMAC Noticias*, 2016ko urriaren 10ean.

Gladys Lanza defendatzailea, Tegucigalpan Hondurastar Emakumearen Egunean egindako martxan. 2016ko urtarrila. Argazkia: Pbi Honduras.

ugalketa eskubideen alde. Azkenik, 2009an, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoak erresalbuzko neurriak eman zizkion Gladysi bera babesteko.

Hondurasko PBI lagun egiten hasi zitzaion bere aktibitateetan 2015eko uztailean. Gladys urte horretan epaitua izan zen, Juan Carlos Reyesek salatuta (Hondurasko Etxebizitzaren Garapenerako Fundazioko zuzendaria bera), zergatik eta defendatzaileak emakume baten alde deklarazio batzuk egin zituelako salatuz zuzendariak sexu jazarpena egin ziola. Hala, 2015eko martxoan, hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten, difamazioagatik. Zigorra betez gero, erakundearen zuzendaritza lanak ezin beterik gelditukо zen[124].

Handik hilabete batera, Gladysek kasazio helegite bat ipini zuen Auzitegi Gorenean. Hil zenean, ebatzi gabe zegoen helegitea, nahiz eta aurkeztu eta 60 egunen buruan behar zuen ebatzia. Bitartean, osasuna galtzen ari zela, Gladysek bi astetik behin agertu behar izan zuen auzitegietara kontrol liburu bat sinatzeko.

12 «Honduras debe evitar criminalización de Gladys Lanza, defensora de derechos humanos», Amnesty International, 2015eko maiatzaren 5a.

DUINTASUNEZ
Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

Zoritxarrez, Gladys ez da izan emakume bakarra, Hondurasko justiziak hil arteraino jazarria izan dena. Aurten ere, Hondurasko gizarte mugimenduak negar egin behar izan zuen Magdalena Morales nekazari borrokalariarengatik, idazkari nagusi izandakoa bera Yoroko departamenduan Landako Langileen Zentro Nazionalean.

Magdalena kriminalizatu egin zuten, Sulako Haranean lurra izatearen alde borrokatzeagatik eta AZUNOSA Britainiako hiriburuko azukre enpresari aurre egiteagatik. Enpresa horrek 10.000 hektarea lur ditu haran horretan; Hondurasko iparraldean dago, eta oso emankorra da. 2013an, Polizia hantxe sartu zen, CNTCk eskualde hartan dituen bulegoetan, eta hura atzeman eta 24 orduz eduki zuten atxilotua, usurpazioa egiteagatik eta kalte-galerak eragiteagatik akusatuta. Guztira, 108 nekazari prozesatu zituzten kasu hartan, eta borroka luze baten ondotik, Auzitegi Gorenean amaitu zen kontua[12].

Magdalena gelditu gabe borrokatu zen eskualde hartan lurrak era bidezko batean banatzearen alde, baita minbizia diagnostikatu ziotenean ere. Gaur egun, 1.600 nekazari familiak aldarrikatzen dute lurra izateko eskubidea Sulako Haranean, eta oraindik ez diete irtenbiderik eman.

Gladysen, Magdalenaren eta aurten utzi gaituzten emakume defendatzaile guztien ondarea eta memoria, hala nola Bertarena, berekin gordeko ditu Hondurasko herriak, eta indarra emango digute giza eskubideak defendatzen dituztenak babesteko egiten dugun lanean. Haien borrokak bizitza eredu dira, eta gogoa pizten digute gure lanean aurrera egin eta bake bideak irekitzen jarraitzeko eta, hala, norberak bere zereginak gauzatzeko indarkeriarik eta mendekurik gabeko espazio batean.

Andrea Torres Bautista

Arlo juridikoaren koordinatzailea Nydia Erika Bautista fundazioan

Espainiako Estatuko PBIk eginiko elkarrizketa

Noiz eta nola hasi zinen giza eskubideen defendatzaile izaten?

Nire familian gertaera mingarri bat izan zen, eta hartatik bihurtu nintzen defendatzaile 1987ko abuztuaren 30ean, hain zuzen, nire jaunartze egunean. Egun hartan desagertu zen nire izeba, Nydia Erika Bautista. Kasualitatez ikusi nuen nola eraman zuten. Amonarekin nindoan kalea zeharkatzera, eta gizon batzuk ikusi nituen emakume bat bortxan sartzen auto batera. Hasiera batean, ez nuen ikusi nor zen, baina garrasi egin zuenean ezagutu nuen. Amona gaixoak honela esan zidan ikaraturik: segi oinez, ez egin ezer. Gertaera hark jo egin ninduen ni eta nire familia osoa. Nydia Erika ez zen sekula itzuli. Orduan, gure amak familiaren ardura hartu zuen, eta borroka luze bati ekin zion hark ere, salatzeko, harri azpitan ere bilatzeko, izebari zer egin zioten jakiteko. Handik aurrera, eskolara edo jostatzera doan neskatxaren bizia zeharo aldatu zen mehatxuengatik ere. Batzuek jazarri egin gintuzten, etxez edo eskolaz aldatzen hasi ginen bat-batean, eta sumatzen zenuen sekula ez zenuela errorik botatzen ahalko.

Ondoren, erbestera etorri ginenean, Nydia Erikaren umea, nire anaia balitz bezala nirekin hazi zena, mehatxuak jasotzen hasi zen bai eta desagerrarazi egingo zutela. Espainia izan zen harrera egin zigun lehen herrialdea; hala, hona etorri ginen, Madrilera, eta hemen hasi nintzen Nydia Erikaren kasuaren txosten osoa irakurtzen, eta ezintasun handi batek jo ninduen ikusita zer-nolako bidegabekeria egin zuten; orduantxe esan nion neure buruari legelari behar nuela izan justizia bilatzeko. Kolonbiara itzuli nintzen zuzenbidea ikasteko, eta orduan GKE batekin lanean hasi nintzen praktiketan, eta ohartu nintzen ez dela kontua bakarrik jendea desagerrarazten dutela; hor dira epaiz kanpoko exekuzioak, masakreak, torturak, indarkeria sexuala... Eta nik pixkanaka gehiago ikasi eta horren aurka borrokatu nahi izan nuen.

Gure amak fundazio bat sortu zuen nire izebaren izenarekin, Alemaniatik giza eskubideen sari bat jasota, eta Kolonbian ezarri genuen. Nydia Erikaren kasuarekin hasi ginen, frogak bilatzen, zer egin zitekeen aztertzen, eta berehala etorri ziren beste kasu batzuk. Grinarekin hartu nituen kasu haiek ere. Handik berehalaxe, aditua egin nintzen nire amak dioen bezala "burezurrari ileak ateratzen", estrategiak bilatzen eta asmatzen. Kolonbiako arazo handia da zigorgabetasunarena handirik baldin bada. Arauak hor daude, baina ez dira betetzen; 27 lege, arau, dekretu eta auto daude jendea desagerrarazpenetatik babesteko, asko da!, 27 tresna sekula erabiltzen ez direnak, baina bederenik balio dutenak exigitzen eta borrokatzen jarraitzeko. Eta hortxe gabiltza, amaren eskutik eta orobat izebarenetik, zeina beste borrokalari handi bat gehiago izan baita giza eskubideak defendatzeko orduan. Berak izan dira nire irakastunak. Oraintxe bertan, Nydia Erika Bautista fundazioan hamahiru emakumeko taldea gara, denak ere familiako norbait desagerrarazi digutenak, eta 300 familiari lagun egiten diegu beren hurkoa bilatzen eta haren gaineko egia eta justizia exigitzen. Beti sumatu dut bihotzeko kontu bat zela. Sekula

Andrea Torres Bautista, Nydia Erika Bautista Fundazioa.
Argazkia: PBI Colombia

ez nau jo amorruak, ezta gorrotoak ere, hain gutxiago mendekuak, baizik eta maitasunak.

Nolako arriskutan zabiltzate giza eskubideak defendatzen dituzuen abokatuak? Eta emakumea izateagatik bakarrik nolako mehatxuak izaten dituzue?

Lehenago esan dizudan bezala, Kolonbian zigorgabetasun handia dago; orduan, horri nola buru eman pentsatu behar izaten duzu... Eta asmatzen duzunean, harri txintxar bihurtzen zara kaltegileen zapatetan, haiek ez baitute nahi ez egiarik jakitea eta ezta justiziarik egitea ere. Orduan, bi mehatxu mota egiten hasten dira. Batzuk zuzenean etortzen zaizkizu inteligentzia militarraren eskutik —haiek egin zuten Nydia Erikaren krimena—; batez ere, jazarpenak, zainketak eta estigmak, eta gerrillariak garelako ospea ematen digute. Beste mehatxu batzuk talde paramilitarren eskutik datoz; hemen, haiek desagerrarazi dute jende gehien. Horiek zuzenean jotzen zaituzte, bulegora edo sakelakora deituta eta mehatxu eginda: esaten dizute hil egin behar zaituztela, eta ez hori bakarrik, bortxatu egin behar dizutela ere bai.

DUINTASUNEZ
Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

Emakumeekin, oso mehatxu zehatzak egiten dituzte. Zure familia ukitzen dute, eta horrek bihotz barneraino jotzen zaitu. Niri autoak jartzen zizkidaten ate aurrean geldirik, umeak eskolara joateko edo handik itzultzeko orduan. Askotan, bakarrik joan eta etorri behar izaten dute ni kanpoan ibiltzen bainaiz justizia bila —holaxe esaten diet—, eta beldurgarria da zure umeei min eman diezaieketela pentsatze hutsa. Horretaz gain, oraintxe aipatu dizut, emakumeoi hil egingo gaituztela ez ezik bortxatu ere egingo digutela esaten digute. Niretzat oso traumatikoa da hori, nire senide bat bortxatu egin baitzuten —Nydia Erika bortxatu egin zuten—, eta fundaziora etortzen diren kasuak ere lazgarriak dira... Hortaz, gizon defendatzaile bat ez dute mehatxatuko sexualki, baina emakume bat bai. Gizon defendatzaile bati ez dizkiote jazartzen seme-alabak; ez diote ospe txarra ematen zenbait konturekin; beraz, badago mehatxu erantsi bat emakumeontzat. Haientzat iraingarria da emakume batek erronka jotzea justiziaren bilaketan.

Zer-nolako zereginak izaten ditu giza eskubideen emakume defendatzaile batek justizia bilatzeko orduan?

Emakumea beti egon da hor, baina akaso orain gehiago ageri da. Kolonbian orain emakume defendatzaile gehiago ikusten dira gizonezkoak baino. Emakume nekazariak, indigenak, afrikarrak atera egin dira etxetik justizia bilara. Askok ez dute ikasketarik, ez dira langile profesionalak, baina indar handia dute, alderdi enpirikotik onenak dira, gidariak. Batik bat jendea desagerrarazten dutenean, rol berezia izan ohi dute, gizonek izan ohi ez dutena. Jendea desagerrarazten dutenean, biktima gehienak gizonak izaten dira; orduan, emakumeek etxeko lanak, ikasketak edo lanbideak uzten dituzte, eta kalera irteten dira beren lagun maiteak non diren bilatzera, eta oso manera kaxkarretan, zeren eta desagerrarazpenek pobrezia handia ekartzen baitute. Horixe bera gertatu zen nire familian ere; nire izebaren bila haren ahizpak atera ziren. Ama bat, amona bat, emazte bat ez da gelditzen bere maite lagunari zer gertatu zaion jakin gabe. Ama batek ez du atsedenik hartzen ez badaki zer gertatu zaion bere umeari eta ez badu aurkitzen; bizia emango du haren bila. Sinestezina da, fundazioan ikusten dugu, ikusiak gara amatxoak minbizia oso aurreratua dutela, eta ez dute hutsik egiten martxetan, elkarretaratzeetan, alaba non den galdezka, azken egunera arte, eta hori benetan tamalgarria da, zeren eta bizi osoa eman eta beren maitea non den jakin gabe joaten baitira.

Nola ikusten duzu PBIk lagun egiten ematen duen laguntza internazionala?

Guretzat zorionekoa izan da, eta zorionekoa diot jakinik ez lukeela horrela behar, ez genukeela izan behar Kolonbiara iritsi zinetenetik lehenengoak brigaden laguntza jaso genuenak. Oroitzen naiz, atzo balitz bezala, nola ikusi zintuztedan etxean, eta, ni Yanethen alaba naizen aldetik —orduan mehatxatua zegoena—,

Yanette Bautista, Nydia Érika Bautista Fundazioa.
Foto: PBI Colombia

segurtasuna ematen zion gauza bakarra zela zuek han izatea berekin. Huraxe zen lasai sentiarazten ninduen gauza bakarra, etxetik ateratzen zenean banekielarik zertarako ateratzen zen. Kolonbian, arriskutsua da giza eskubideak defendatzea, baina aldi hura beldurgarria izan zen. Nire oroitzea da beti hor ikusten zintuztedala, beti nire etxean, eta orain indar handiagoa hartzen du oroitzapen horrek, niri neuri ematen didazuelako laguntza. Bizkartzainekin edo estatuaren edozein babes mekanismorekin baino segurtasun handiagoa sumatzen dut zuekin. Zertan nabilen kontatzeko konfiantza ematen didazue, zeren eta errespetua dago giza eskubideen alde egiten den lanarengatik. Zuek zarete bertaraino sartzen zareten bakarrak, biktimen eta nekazarien egunerokoa ikusten duzuenak, landa eremuan ibiltzen zaretenak inolako bermerik gabe, non eta enpresak bere megaproiektuetan dabiltzan lekuetan. Sumatzen dugu hemen zaudetela gure ondoan, eskuz esku. Sumatzen dugu zuei errespetua dizuetela eta aitortzen zaituztetela, gero eta gehiago. Nabaritu egiten da: orain dela bost urte auzitegi batera lagun egitera etortzen zinetenean, epaileak beti galdetzen zuen ‘eta horiek nor dira?’. Orain ez; orain badakite nor zareten, eta hori nabaritu egiten da haien jokaeran; gauzak hobeto egiten saiatzen dira zuek bertan zaudetenean. Kasuei garrantzi handiagoa ematen diete, eta nolabait eskakizun handiagoak egiten dituzte lagun egiten

DUINTASUNEZ
Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

badidazue. Badakit ere hor zaudetelako mehatxuak bete gabe gelditu direla. Ni ez naiz inoiz ere geldituko nire lanetik, eta nik egiten dudana egiterik nahi ez dutenek badakite zuek hor zaretela, begira, eta, nolabait ere, ni zaintzen, eta horrek geldiarazten ditu egunero egin nahi didatela esaten duten gauza horiek egitetik.

SOINEKO ZURIA

Nydia Erika Bautistaren oroitzapenetan, 1955 – 1987

Amildegiaren ertzean aurkitu zituzten arropak, arnasik gehiago hartzen ez zuen gorputz batenak.

Erik Arellana Bautista

Gidoilaria: Oscar Pantoja
Irudiak: María Fernanda Lesmes B.

NIRE IZENA YANETTE DA. ETA EZ NOA NIRE ISTORIOA KONTATZERA, NAHIZ ETA BANAGOEN ISTORIO HORRETAN, IBAIKO URA ITSASOAN NOLA

NIRE GURASOEK, DOMIK ETA ALFONSOK, SEI SEME-ALABA IZAN ZITUZTEN, ETA ANAI-ARREBEZ INGURATUA HAZI NINTZEN.

ETA NYDIA ERIKA IZAN ZEN, ANAI-ARREBA GEHIENA, GURE BIZITZA BETIRAKO MARKATU ZUENA.

GUSTURA EGOTEN GINEN PATIOAN TOBITAREKIN ETA MUERGANOREKIN —NIRE AMAREN EZTULA IMITATZEN ZUEN LOROA—.

HANDITAN ZER IZANGO GINEN JOLASTEN GINEN: NYDIAK JENDEARI LAGUNDU NAHI ZION, ETA NIK HITZALDIAK EMATEN NITUELA AMETS EGITEN NUEN.

EGUN BATEAN, AITAK BOLIVAR PLAZARA ERAMAN

ETA ARGAZKI HAU EGIN ZUTEN, AITAK BERA UME TXIKIAK BEZALA ALTZOAN HARTUTA. NESKATOAK ZEOZER ATERA ZION AITARI, JENDEARI BEGIRAKO IDEIA POLITIKOAK ZITUEN GIZON LIBERALA BERA. ETXERA IRITSI ZENEAN HONELA ESAN ZIDAN:

HANDITZEN NAIZENEAN, JENDEARI LAGUNDU NAHI DIOT

NOLA?

ORAINDIK EZ DAKIT

DENBORA JOAN ZEN. NIK NIRE TAKOIAK ETA JANTZIA JARRI NITUEN, ETA LANERA JOAN NINTZEN MULTINAZIONAL BATERA.

NYDIAK BAPO EGIN ZUEN, UNIBERTSITATE NAZIONALERA JOAN BAITZEN SOZIOLOGIA IKASTERA.

ATZEAN GELDITU ZIREN GURE UMETAKO EGUBERRI EGUNAK, ETA BERA POLITIKAZ MINTZATZEN ZEN LEHENGUSUEKIN EMAKUME BAT BALITZ BEZALA.

AUZOKO LEHEN MUTIL-LAGUNAK HASI ZIREN

LEHENBIZIKO RUNBAK ADISKIDEEKIN.

ANAI-ARREBA DENOK GEURE BIZIA EGITEN HASI GINEN, BAINA ZEOZER SARTU ZEN GURPILEAN ETA HAUTSI EGIN ZUEN.

NYDIAK UME BAT IZAN ZUEN: ERIK EMAN ZION IZENA.

NIK ALABA IZAN NUEN: ANDREA JARRI NION.

URTEBETETZEETAN BILTZEN GINEN, ETA ELKARREKIN OSPATZEN GENITUEN.

EGUN BATEZ, ZERTAN ZEBILEN KONTATU ZIDAN, NAHIZ ETA SUMATUA NUEN ZERBAIT. FUNTSEAN BANEKIEN.

GOGORATZEN DUZU ALDI BATEAN HAURRAK GINELA NOLA ESAN NIZUN HANDITAN JENDEARI LAGUNDU NAHI NIOLA?

BAI, ETZANDA GEUNDEN

IRITSI DA BA ORDUA, ETA IRAULTZA EGINEZ BAKARRIK LOR DAITEKE. BOTEREAREN ARAUAK ALDATU BEHAR DIRA

HEMEN BETI AGINDU DUTE ABERATSEK. ALDAKETA BAT GERTATU BEHAR DA. GAU HARTAN, AMETS BAT IZAN NUEN, INOZO SAMARRA AGIAN, BAINA ORAIN ARTE MAIZ IZAN DUDANA

AMETSEAN JENDEAK HEGAN EGIN ZEZAKEEN ETA LIBREA ZEN. TXORIEK BEZALA EGITEN ZUTEN

TAMALEZ AMETS BAT BAINO EZ ZEN, NYDIA

YANETTE, IRAULTZA HORRETAN PARTE HARTZERA NOA

BAINA ARRISKUTSUA DA. ARMEKIN EZ DA MUNDUA ALDATUKO

ETA HAURRA?

HARENGATIK ARI NAIZ, GUZTIENGATIK. HERRIALDE HAU ALDATU BEHARRA DAGO

EGUNAK DIRA AMETS EGITEN ARI NAIZELA ESKU BATEK HARRAPATU ETA ERAMAN EGITEN ZAITUELA

EGUN HARTATIK AURRERA EZUSTEZ EZUSTE BIZI IZAN GINEN. BELDURREZ.

NYDIARI SEGITZEN HASI ZIREN. AUTO MISTERIOTSUAK, GIZON ARRAROAK

AHIZPA PRESAKA IRTETEN ZEN HIRITIK, BIZKAR ZORROA BIDAIATZEKO PREST.

BATEK USTE DU INDARKERIAK EZ DUELA BEHIN ERE UKITUKO.

NYDIA EMAKUME PROFESIONALA ZEN, BIGARREN IKASKETEI HELDU ZIEN, 1982AN, EKONOMIARI.

ETA ZORITXARRETAN GERTATZEN DEN BEZALA, GUTXIEN USTE GENUENEAN ATEA JO ZUEN.

1987KO ABUZTUAREN 30A ZEN, ANDREAREN ETA ERIKEN LEHEN JAUNARTZEAN.

AMA, NAHI DUT TARTA GEHIAGO!

EGON DENAK JAN ARTE, ETA GERO HARTUKO DUZU GEHIAGO

NYDIA, JOAN BEHAR DUT BERANTETSIA NAGO

MERCEDES, AUTOBUSERA LAGUNDUKO DIZUT

AMA, ATERA GAITEZKE PIXKA BAT KARRIKARA?
PIXKA-PIXKA BAT, BERARI AUTOBUSERA LAGUNDU BITARTEAN

GOAZEN PAREKO TXAKURRA IKUSTERA
GOAZEN!

KARRIKAN GINEN, ATEAN, BERA NOIZ ITZULIKO ZAIN.

ORDUAN, GARRASIAK ENTZUN GENITUEN. NYDIA ZEN OIHUKA. ANDREA LASTERKA ATERA ZEN...

GIZON BATZUK IKUSI ZITUEN NOLA SARTZEN ZUTEN INDARREZ JEEP BATERA.

AUTOA ABIATU ZEN. HURAXE DA BERA IKUSI GENUEN AZKEN EGUNA ETA BERE SEMEAREN ETA NIRE ALABAREN LEHEN JAUNARTZEAREN EGUNA. IZUAK JOTA GELDITU GINEN. ONDOREN, DENA ILUN GELDITU ZEN. ILUNTASUN AMAIGABEA.

MINUTUAK, ORDUAK ETA EGUNAK JOAN ZIREN. ASTEAK, HILAK ETA URTEAK. ETA EZ GENEKIEN DEUS NYDIAZ. EZ DAGO DEUS BELDURGARRIAGORIK, NORBAITEZ DEUS EZ JAKITEA BEZALAKORIK.

HURA DESAGERTZEN IKUSTEA BEZALAKORIK. SUMATZEN DUZU NOLA ABAILTZEN ZAREN ULERTZEN DUZUNEAN ATZO GUREKIN ZELA BAINA GAUR EZ. HAREN AURPEGIRIK GEHIAGO EZ IKUSTEA, HAREN IRRIBARRERIK EZ SUMATZEA.

HAREN AHOTSA, HAREN HITZAK, SEKULA BERRIZ EZ IKUSTEA. NOLA DEMOKRAZIA BATEN HAU GERTA DAITEKE?

AMETSETAN, EGUN HARTAN ZUEN SOINEKO ZURIAREKIN IKUSTEN DUT, ETA ESATEN DIT: «IZAR BERRI BAT PIZTU DUT».

GU KARRIKARA ATERATZEN GINEN, BIZIRIK ITZUL ZIEZAGUTELA OIHUKA. BAINA ORDURAKO HILA ZUTEN. GERO, BERRIZ, OIHUKA ARITZEKO INDARRA GALDU NUEN.

BAINA EZ GENUEN UTZI BEHAR DESAGERTZEN. BILA ETA BILA SEGITUKO GENUEN AURKITU ARTE.

HIRU URTE EZIN LUZEAGOAK EMAN GENITUEN AITAREKIN ETA ANAI-ARREBEKIN HAREN BILA, DESTAINAK JAURTI ZIZKIGUTEN, MEHATXUAK, EZINEGONA, IRAINAK, JAZARPENAK, GEZURRAK ETA ZITALKERIAK, HAREN GORPUTZA AURKITU GENUEN, TORTURATUA, BORTXATUA ETA HOTZA EZ DAKIT NONGO HILERRI BATEAN, BERA JAIO ZEN HERRITIK URRUTI.



ERRUDUNEN BILA HASI GINEN, ETA GURE LEHEN ABOKATUA HIL ZUTEN, GURE BIGARREN ABOKATUA HIL ZUTEN ETA HILKO GINTUZTELA MEHATXATU.

BAINA EZ GINEN GELDITU, EZ GINEN ISILDU. EZ GENUEN ATSEDENIK HARTU EGUN LAZGARRI HARTAN NYDIA ERIKA ITZULI ZIGUTEN ARTE, NIRE AHIZPA.

ZAKU BELTZ BAT EMAN ZIGUTEN HAREN GORPUZKIEKIN, SOINEKO ZURIA IRAULIA ETA ZIKINA. HORI ITZULI ZIGUTEN NYDIATIK.

GURE AITAK GORPUZKIAK HARTU ETA FAMILIAREKIN EHORZTE DUINA EMAN GENION.

ERRUDUNAK, ARMADAKO JENERAL BAT ETA BESTE ZENBAIT MILITAR, KARGUGABETU EGIN ZITUZTEN.

BAINA GUK JARRAITU GENUEN DESAGERRARAZPENARI DAGOKION ZIGORRA ESKATZEN; EZ DUTE EMAN ORAINDIK.

MEHATXUAK EGIN ZIZKIGUTEN, ETA HERRIALDETIK ALDE EGIN GENUEN. ANDREA ETA ERIK KANPOAN HAZI DIRA. NI HAN SARTU NINTZEN HELDUAROAN. BAINA EZ ZIGUTEN ISILARAZI. JARRAITU DUGU SALATZEN NYDIAREN DESAGERRARAZPENA ETA HAREN PATU BERA IZAN DUTEN BESTE EHUNKA LAGUNENA. GAUZA BAKARRA IZATEN DUT BURUTAN, IZAN DADILA JUSTIZIA, NYDIA ERIKAREN AMETSA EGIA BIHUR DADILA.

Dina Meza

**Kazetaria.
Hondurasko Demokraziaren
eta Giza Eskubideen Aldeko Elkarteko zuzendaria**

Espainiako Estatuko PBIk eginiko elkarrizketa

Kaixo, Dina. Hasteko, kontaiguzu nolakoak izan diren zure ibilerak Hondurasen giza eskubideen defendatzaile zaren aldetik.

Esango nuke 1989tik naizela defendatzailea. Urte horretan, abuztuaren 31n, anaia zaharrena bahitu zidaten, Victor. Morroi armatu batzuek eraman zuten auto batean, autoa plakarik gabea eta leiho ilunekoa. Hasiera batean ez genekien nor ziren, indar polizialak edo armada ote zen. Gero jakin genuen heriotzaren eskuadroi bat zela. Kartzela ezkutu batera eraman zuten, zenbait astez torturatu eta, azkenik, familiak protesta gogorrak eginda, agertu zen. Gerrillaritzat pasarazi zuten, arma askorekin, eta preso sartu hiru urterako. Beldurgarria izan zen; desagerrarazpenek ñabardura asko izaten dituzte, eta familia jotzen dute. Asko borrokatu ginen kalean utz zezaten, eta azkenean, amnistia lortu genuen eta atera zen, beste hamasei preso politikorekin batera, 1990ean. Holakorik sekula ikusi gabea nintzen. Garai hartan kazetaritza ikasten ari nintzen, hirugarren urtean nengoen, eta arlo horretatik ekarpenak egin nituen; prentsari mintzatzen nintzaion eta kasua azaltzen nuen. Horrela, eragin handia lortu genuen, eta erakutsi bahitu egin zutela. Esan dezaket orduantxe hasi nintzela giza eskubideen defendatzaile izaten.

Dina Meza, hitza hartu zuenean, giza eskubideen defendatzaileei buruzko Kontalari Bereziak Hondurasen egindako bisitan. 2016ko abuztua.
Argazkia: Erika Martínez

Azaldu dezakezu nolako zeregina duen emakumeak Erdialdeko Amerikako prozesu sozialetan?

Emakumeak funtsezkoak eta ezinbestekoak izan dira gizateriaren hastapenetik. Beti izan dituzte oso ekarpen baliotsuak, eta, oro har, sistema patriarkal batean egonagatik ez dira kikildu izan, izan ere sistema honek emakumearen eginahalak ukatu eta gizarteari egiten dizkion ekarpenak ezeztatzen ditu. Erdialdeko Amerikako eta Hondurasko kasuan, jakina, berdin-berdina da. Ez dute emakumea behar den bezala nabarmentzen, zergatik eta historiaren zati bat baino ez dutelako kontatzen. Betitik egon gara gizarteko eta politikako prozesu guztietan, borrokan gure herrialdean demokrazia ezartzearen alde, genero berdintasunaren alde, emakumeen parte-hartzearen alde eta kargu publikoak hartzearen alde. Emakumeei esker aldatu dira lege asko, emakume abokatu eta kazetariei esker, eta lanbide askotako emakumeak egon dira mugimendu sozial guztietan, eta guztiek egin dute asko gizartearen alde.

Nolako arriskuetan ibiltzen da giza eskubideen aldeko emakume defendatzailea Erdialdeko Amerikan?

Emakumeek presio handiagoa jasaten dute, hain zuzen sistema patriarkal honetan gaudelako. Sistema honetan, emakumeek ez dute ahotsik altxatu behar, eta, altxatzen badute, gure familiak eta alabak mehatxatzen dituzte. Bortxatuko gaituzten mehatxuak era izaten dira, edo zuzenean bortxatu egiten gaituzte. Gure gorputzak erabiltzen dituzten gudu zelai gisa, eta hori aspaldiko urteetan ari gara salatzen. Gure sendia jotzen dute, zeren eta gu, emakume garen aldetik, familia babesteko betebeharra hartzen baitugu, gure seme-alabak zaintzekoa. Emakumearen nukleoa joz, geure lana trabatu eta geldiarazi nahi dute; horra hor zergatik mehatxatzen gaituzten. Nabarmena da gure bizitzaren zati funtsezkoari erasotzen diotela, eta baditut kideak azkenean atzera egin dutenak beren familiak oso gogor jo dituztelako.

Zein da kazetaritza konprometituaren egoera Hondurasen?

Hondurasen arazo handiak ditugu kazetaritza egiteko. Komunikabideak jende gutxiren esku daude, herrialdea joan deneko ehun urtean gobernatzen ari diren taldeen esku. Oligarkiak ditu hedabide gehienak, eta hedabide independenteentzako dauden zirrikituak ixten ari da. Horretarako, era guztietako argumentuak eta tranpak erabiltzen dituzte; ez diete eskaintzen irrati edo telebista frekuentziarik, eta espazio komunitarioak ixten dituzte esanez gizartea asaldarazi eta gorrotoa hedatu nahi dutela. Lege berriak egiten ari dira komunikabide alternatiboak ixteko. Horri aurre eginez, mugimendu oso bat ari da eskatzen

DUINTASUNEZ
Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

frekuentziak demokratizatzeko eta komunitateei eta gizarteko taldeei emateko, baina jarraitzen dute tranpa egiten, zeren eta lizentzia gehienak Elizari edo herrialdeko bi alderdi handien barneko mugimendu aktiboei ematen baitizkiete. Hala eta ere, badira zenbait espazio alternatibo, hala nola kazeta digitalak. Orain dela urtebete pasa, kazeta bat sortu nuen, *Pasos de animal grande* izenekoa (Hondurasko esaera bat da, eta esan nahi du zeozer handia gertatuko dela, zerbaitek gogor joko duela) eta gune horretan herrialdea nola dagoen azaltzen dugu giza eskubideen ikuspegitik. Badira beste erakunde batzuk adierazpen askatasuna babesten dutenak; badira, halaber, prentsa alternatiboa eta bestelako hedabideak, eta denak elkarrekin goaz, eragiten, zaintzen, elkartasuna erakusten eta lagun egiten.

Kazetari konprometituok zenbait gauza salatzen ditugunez (hala nola ustelkeria, giza eskubideen urraketak eta adierazpenak egiteko askatasun falta), jakina, mehatxu asko izaten dira. Denetik esaten digute, hil egingo gaituztela, gure familia garbituko dutela... Horrelakoak armadak eta mertzenarioek egiten dituzte, baina badira horretan dabiltzan kazetariak, etsaitzat hartzen gaituztenak, gure kazetaritza ez delako tradizionala, hots, gobernuan denaren agendaren araberakoa. Presio handia egiten dute fronte askok, baina uste dut oso inportantea dela giza eskubideen defentsarena maneiatzea kazetaritzarekin konbinatuta; komunikazioa oso tresna indartsua da eragiteko.

Nola ikusten duzu PBIk lagun egiten ematen duen laguntza internazionala?

Nik mehatxu asko jasan ditut nire lanagatik, eta nire bidea asko erraztu da hein handian PBI egiten ari den lanari esker, izan ere estatuak ez baitigu inolako babesik bermatzen. Giza eskubideen defendatzaileok, Hondurasen, PBIrekin dugu esperantza; hor zaudete zuek guri lagun egiten. Nirekin kazetaritza ikerketak egitera etortzen dira arriskuan diren beste batzuei lagun egitera joaten naizenean justizia auzitegietara, edo agintariengan eragiteko bileretara joaten naizenean edo nazioarteko misioak egiten ditudanean; hortxe egoten da PBI, eta niretzat funtsezkoa izan da 2014tik.

Yésica Sánchez Maya

Abokatu feminista, zuzendariaren ondokoa Elkarrizketarako eta Berdintasunerako Oaxakako

Partzuergoan eta, horrez gain, Mexikoko Giza Eskubideen defendatzaileen Sare Nazionaleko kidea

Mexikoko PBIk egindako elkarrizketa

Nola sortu zen partzuergoa?

Partzuergoa, erakunde zibil feministe bat dena, Mexiko Hiriburuan sortu zen, prozesu handi bat landu eta legerian eragina izateko zereginarekin. Partzuergoa Oaxakan kokatu zen, Mexikoko Hiriburuan dauden gorabeheretatik zertxobait bereiz. Giza eskubideen baldintzak, ustelkeriaren krisia, zigorgabetasunarena... Horrek guztiak adierazten zuen Partzuergoak ezin zuela legeriaren arlo bakar batean lan egin. 2003an, formalki sortu zen partzuergoa, Oaxacan berdintasunaren elkarrizketa parlamentarioa gauzatzeko. Handik aurrera, partzuergoak prozesu oso bat lantzeari ekin zion askotariko komunitate indigenekin; horrez gain, beste zenbait konturi ere heldu zien, hala nola legeria betetzen dela zaintzeari. Ondoren, partzuergoak orain lantzen ari den gaiei heldu zien, hala nola emakumeen kontrako indarkeria, feminizidioa eta erabakitzeko eskubidea, eta, lan horri esker, geroago, lan agenda moduko bat ireki ahal izan genuen, erakundeekin loturak ezartzeko eta eremu politikoetan artikulazioak eratzeko. Orduan hasi zen partzuergoa Oaxacan finkatzen, erakunde feminista gisa.

Gaur egun, nola lantzen duzue arlo hori?

Partzuegoak jauzi handia eman du, lehen kide bakarreko eta bi kideko erakundea zena orain lan-ardatz askotako erakunde nahiko handia bihurtu baita. Alde batetik, lagun egitearen prozesu osoa lantze ari gara, eta Mixe eskualdeko emakume indigenen lidergoa indartzen. Beste alde batetik, arriskuan diren emakume defendatzaileak babesteko eta laguntzeko prozesua dugu. Feminizidioaren edo emakumeen kontrako indarkeriaren arloan lan ildo bat dugu, eta, bestalde, prozesu handi bat lantzen ari gara argitaratzen ditugun gauzak hedatzeko; irrati programak ere baditugu, kulturaren gaian eta emakumeen eskubideen errespetuan sakontzen jarraitzeko. Eta beste ildo bat gizarte mugimenduei lagun egitearena eta elkartasuna erakustearena da. Zer esan nahi du horrek? Partzuergoak lagundu edo indartu egiten ditu giza eskubideak urratu zaizkien biktimen senideen batzordeek eginiko eraldaketa prozesuak, nola eta, besteren artean, emakume defendatzaileei lagun eginda erresalbuzko neurriak hartzen diren mahaietan edo Estatuen aurkako ekintza legalak egiteagatik arriskuan direnean. Beste atal bat zera da, lotura lana egitea erakunde nazionalekin eta nazioartekoekin, zenbait arlotako lagun egiteetarako; horrek zertxobait efikazagoak izatea ahalbidetu digu.

Zein da lan horren helburua, zer aldatu nahi duzue?

Zer bilatzen dugu indarkeriaren gaian? Bada, hain justu, emakumeen kontrako indarkeria eta diskriminazioa ezabatzea. Emakume indigenei tresnak emanez haiek ahalduntzea, ez bakarrik emakumeen eskubideen gaineko jakintzak eta ezagutzak

Yesica Sanchez Maya «Tejiendo redes y saberes para la participación política de las mujeres mixes» mintegian parte hartzen. 2016ko azaroa. Argazkia: PBI Mexiko.

emanda baita ahalduntze ekonomikorako tresnak emanda ere. Partzuergoak urteak daramatza lagun egiteko prozesuetan torturen biktima izan direnentzat, bortxatuak izan direnentzat, ausazko atxiloketak jasan dituztenentzat nahiz bortxazko desagertzeak izan diren kasuetan. Partzuergoa beti saiatzen da gizarte mugimendua eratzen, baina lagun egite prozesuak sorrarazita giza eskubideez jabetzen laguntzeko eta Estatuari egiten zaizkion eskaerak indartzeko. Eta horrek esan nahi du giza eskubideak urratu dizkieten biktimen familiek edo batzordeek subjektu nagusiak izan behar dutela gure lagun egiteetan. Horrekin guztiarekin, zuzenbide estatua eraikitzen lagundu nahi dugu, nahiz eta espero genezakeena baino puskatuagoa dagoen. Lortu nahi ditugun gauzen artean, ideia batez jabetzea nahi dugu jendea, hau da, giza eskubideen jabe dela konturaraztea, horiek bete daitezela exigitu dezakeela eta urratzen badira ez duela isilik behar. Bai Oaxacako estatuan eta bai Mexikoko gobernuan giza eskubideak urratzen direla agertu nahi diogu nazioarteari.

Horretaz gainera, emakume defendatzaileei lagun egin nahi diegu, gizarte mugimendua indartu dadin. Emakume defendatzaileen babesa eta segurtasuna bilatzen dutenei lagun eginda uste dugu mugimenduen aldeko babes prozesuak eratzen direla. Giza eskubideen defendatzaileek ez dute bakarrik banan-banan lan egiten; gizarte mugimendua indartzen duen lan kolektiboa ere bada haiena. Partzuergoak erabaki zuen giza eskubideen emakume defendatzaileei lagun egiteari ekitea eta hala gizarte mugimendua eratu eta indartzearen alde egitea.

Badakigu partzuergoak lan handia egiten duela sareetan. Kideetako batzuk sareen koordinatzaileak dira estatu mailan, federazio mailan eta, are, eskualde mailan. Zer ekarri dizue sareko lan horrek?

Guretzat sareko lanak ere balio du gizarte mugimendua eratzeko. Guretzat inportantea da bakarrik ez ibiltzen saiatzea baizik eta beti komunikazioa eta hurbiltasuna sorraraztea. Ohartzen gara partzuergoa bere horretan nahikoa litzatekeela defendatzaileei babesa emateko, nahikoa litzatekeela indarkeriaren edo errepresioaren biktima izan diren emakumeei lagun egiteko. Orduan, ikusten dugu sareko lanak aukera ematen duela erantzun motak indartzeko giza eskubideak urratzen direnean. Partzuergoak, beraz, defendatzaileak koordinatzen ditu estatu mailan, maila nazionalean, eta Giza Eskubideen Erdialdeko Amerikako Emakume Defendatzaileen Ekimenaren parte ere bagara. Bestalde, gizarte mugimenduarekin, beti saiatzen gara elkarrekin irteten, beti saiatzen gara elkarren hurbil egoten, bakarrik ez ibiltzea ahalbidetzen diguten testuinguruak eztabaidatzen eta analizatzen. Ahal dugunean, halaber, saiatzen gara gizarte mugimenduaren agendaren barnean genero ikuspegia nola txerta daitekeen eragiten, nahiz eta ez zaigun beti arrakastatsua gertatzen. Uste dugu hori ere inportantea dela; orobat, Partzuergoak bere nortasun feministatik egin dezakeen ekarpen espezifikoa. Sareko lan honek estaldura handia eman die lagun egiten diegun emakume defendatzaileei, baina, era berean, esperientzia handia izan da sareak eraikitzen ikasteko, ez baita gauza erraza. Nola eratu akordioak, gizarte mugimenduaren barruan, egoera edo itun jakinen inguruan, aurrera egiteko bidea emango dutenak. Ez da erraza sareko lana; ez da erraza itunak egitea sarean ibiltzeko, baina iruditzen zaigu giza eskubideen gainerako emakume defendatzaileen borondateari eta prestasunari esker estatu mailako mugimenduarekin bezainbat lotu garela maila nazionalarekin, baina baita eskualde mailarekin eta Erdialdeko Amerikarekin ere. Are gehiago, ez nuke esango sarea Europa mailakoa denik, baina ez da zalantzarik elkartasun handia eta hurbiltasuna jaso ditugula hemen zenbait ekintza eta gertaera izan direnean.

Oaxacako estatuan emakume defendatzaileek duten arriskuari dagokionez, kontaizkiguzu generoarekin zerikusi nabarmena duten kasu enblematiko batzuk.

Hain zuzen egin dugun lanarengatik, gaur egun mapa bat dugu estatu mailako gertaeren erregistro bat eramateko. Ezin dugu esan gertaera guztiak jasota daudela, baina erregistroa egiten hasi ginenetik kopurua era konplikatuan igo da. 2012an hasi ginen erdizka erregistratuta; ondoren, 2013an, 2014an, 2015ean eta abar jarraitu genuen. Eta ikusi genuen esaterako hastapenean erregistratutako 42 kasuetatik 300era igo zela kontua. Orduan, kezka handia dago, zeren eta, hain zuzen, defendatzaileak antisistema balira bezala ikusteak erasoak ugaritzen ditu.

Erasoak handitzeak zera esan nahi du: zenbat eta giza eskubideen krisi handiagoa izan, orduan eta eraso handiagoak emakume defendatzaileei, eta, ondorioz, handiagoa arriskua ere. Ikus dezakegu badirela joera jakinak defendatzaile motaren arabera; adibidez, zer-nolako eskubideak defendatzen dituzten, zein eskualdetan dauden, nolako gaitegia defendatzen duten eta generoa bera. Lagun egiten izan garen zenbait eskualdetan, testuinguruak baldintzatzen du asko: defendatzaileen nortasunaren araberako erasoak izaten dira, edo bestela beren ibilbidearen edo bizimoduaren araberakoak. Adibidez, kasu bat dago istmoren eskualdean, non honelako mehatxua jaso baitzuten: «Geldi hadi kontu horiek salatzetik, bestela hil egingo haugu hi heu eta hire alabak, eta senarra ere hilko dinagu».

Nolako lana egiten du? Zer salatu zuen?

Eolikoen kontrako borroka da; borrokatzen ari da bere kideei kontsultarako eta inbertsioen inguruko eskubidea urratzen ari dietelako. Komunitateekin akordiorik egin gabe ari dira, eta kalte handiak sorrarazten eolikoen inbertsioarekin. Han, Istmon bertan, beste bi kasutan aritu ginen lagun egiten, eta mehatxu hauxe jaso zuten: «Bazakinagu non bizi haizen, eta hire haurrak eskolatik ateratzean, ezetz bakar bat bera ere ikusi gehiago». Kostan ere bai; adibidez, lagun baten kasua dugu, espetxean bikotekideari tratu txarrak eman dizkiotela salatzen ari dena. Telefono deiak izan zituen, eta honela esaten zioten: *«Izorratu egin behar diten»*, bortxatu egingo zutela, talibanengana joateko, semea hilko ziotela, gurasoak hilko zizkiotela. Mehatxu zerrenda bat izan zen, telefonoz, eta gaitzespenak ere izan zituen komunitatean, emagaldua zelako kontuak. Behin eta berriz gertatzen da irainena, emakumeak askatasun sexuala aplikatzen ari direnetik erabiltzen dena. Ez dira defendatzaileak *«batek daki norekin oheratzen ari direlako»*. Orduan, gutxiespenak jasotzen dituzte bizitza pribatuaren eta intimoaren inguruan. Mehatxatu egin ohi dute, eta hauxe esaten: *«Hago isilik, bestela zerrenda gorrian agertuko haiz»*. Hau da, gordeka egindako mehatxua, feminizidioarekin zerikusia duena: hiltzen dituzten emakumeak zerrenda gorrian azaltzen dira.

Partzuergoak eraso sail bat jasan du. Soslaien araberakoak ere izan dira erasoak: lanaren araberakoa, agendaren araberakoa eta irekita ditugun auzien araberakoa. Oso kezkagarriak izan ziren 2011ko urriko eta 2012ko martxoko gertaerak, legez kontra sartu baitziren bi bulegotan. Elkarren oso hurbilekoak izan ziren biak, eta eraso nahi gintuztela ikusarazi ziguten horrekin. Baina hain zuzen feminizidioak eta emakumeen kontrako indarkeria salatzea baldin bada gure zeregina, nori eragin nahi diote? Bulegoak gureak ziren. Horren ondoren, zainketan jarri gintuzten. Zainketa etengabekoa izan da. Erakundea sendotzen joan ginen, eta badirudi hori deserosoa dela zenbaitentzat. Hor hasi zen indartzen zainketaren kontua.
Erresalbuzko neurrien onurak jasotzen ditugu 2012. urtetik; Estatuko gobernuarekin zenbait lan mahai egin genituen. Mahai horietatik, esan dezakegu hesi elektrikoaren

Lagun egiteko hitzarmenaren sinadura PBI Mexiko eta Consorcio Oaxacaren artean.
Argazkia: PBI Mexiko.

instalazioaren zati bat atera zela eta zenbait neurri gogor. Baina egiaz ez zen bermerik gorde lanean jarraitzeko, zeren eta azkenean nahiz eta neurri horiek izan, eraso gehiago izan genituen. Estatuko Poliziak segurtasun errondak egiten ditu oraindik. Iaz, orain berriro, alegia, zainketa asko indartu zuten, oso jazarriak izan ginen, eta argi utzi nahi izan ziguten *«jarraitzen ari zaituztegula»*. Auto arraroekin segitzen ziguten, auto ofizialekin... Zuzendarietako baten etxera sartu ziren, Ana Maria Hernandezenera, 2015eko abuztuan, eta gero azaroan, baita nire etxera ere. Asko ekin zuten nire kontra, eta, tamalez, estatuari etxeetara sartu zitzaizkigula ohartaraziagatik, esan dezakegu aurretik sei ikerketa irekita izan ditugula Partzuergo gisa, eta horietako batetik ere ez dela kartzela zigorrik etorri. Kontua da salatu ondoren askoz ere informazio gehiago dutela salatu aurretik baino. Horrek arriskuan jartzen du gurekin diharduen jendea. Hori da ikerketa telefonikoaren punturik larriena, zeren eta azkenean hitz egiten dugun jendearen telefono zenbakiak jakiten dituzte, traturik handiena norekin duzun, nondik eta nora deitzen duzun... Horrek zaurgarritasun handia eragiten dio gurekin aritzen den jendeari. Horren ondorioz, Partzuergoak ez dio segurtasunik eskatzen estatuari; ez da fio. Hala, segurtasun neurri sorta propio bat eraiki du partzuergoak, lagun egiteko orduan, planak eta protokoloak eratzeko orduan eta abar. Eta erronketako bat dugu geure segurtasuna ematea geure kideei, gizarte mugimenduan diharduten kideei eta nazioarteko komunitateari. Partzuergoak barnetik indartu behar izan du gure lanarekin aurre egiteko estatuaren erasoei. Egiaz esaten dugu guk egiten dugun lanaren parte handi bat berek egin behar luketela: justizia eta duintasuna eskatzea,

ez zigorgabetasuna. Estatuak berez bermatu behar luke: ez du hala egiten, eta eskatu egin behar duzu, eta, orduan, xaxatze giro bat sortzen da, eta errepresio eta beldurrarazte giro bat.

Hori ikusita, zergatik eskatzen duzue PBIren lagun egitea eta zer espero duzue horretatik?

Ikusten dugu gure segurtasuna handiagoa dela pentsatuta edo uste izanda Estatuak babes gaitzakeela. Eta adibide bat jartzen dugu: bilerak diren bakoitzean, larunbatean edo igandean, herrialdetik edo hiritik kanpo etortzen den jendearekin, kasualitatez Poliziak errondak egiten ditu. Ohartzen gara Estatuak etengabe zaintzen duela partzuergoa, eta orduan ikusi genuen Estatua zela eraso horien susmagarri nagusia. Nola Estatuak babestuko gaitu? Partzuergoa prozesu horretan jabetu zen arriskuaz, eta geroztik pixkanaka ari da hari aurre egiten zenbait lagun egiteren bitartez. Guretzat garrantzi handikoa izan zen babes hori jasotzea, eta nazioarteko komunitateak hartzea ardura hori. Partzuergoak uko egin dio behin eta berriz eraso horiengatik biktimarena egiteari. Gure baitan printzipio bat balego bezala da; ez dugu nahi jendeak gu eraso horiengatik ezagutzerik: «Gaixoak, bakarrik daude»; ez, baizik eta gure lanarengatik, hori baita inportanteena.
Hauxe esan genuen: «Bai, eska dezagun arriskuaz ohartzen diren eta era berean Partzuergoaren lana aitortzen duten erakundeen hurbiltasuna eta laguntasuna, eta lagun diezagutela ataka honetan gure lana ikusarazten». Orduan erabaki zen, 2015eko arrisku handia ikusita —izan ere, erabat beldurtuta sumatzen genuen geure burua zenbait ekintza zirela medio—, PBIri lagun egitea eskatzeko gogoeta. Garrantzitsua iruditzen zaigu Estatuari erakustea ez garela erakunde bakartuak,

Yesica Sanchez Maya «Tejiendo redes y saberes para la participación política de las mujeres mixes» mintegian parte hartzen. 2016ko azaroa. Argazkia: PBI Mexiko.

baizik eta nazioartean maila handiko gaitasuna eta harremanak dituen jendeak laguntzen gaituela. Hori oso garrantzitsua da guretzat segurtasun plan bat eratzeko prozesu honetan. Hau da, bai PBI, elementu garrantzitsu gisa (ez bakarra), barneko gauzak osatzen dituen funtsezko osagarri gisa.
Orduan, zer espero dugu lagun egite horretatik? Hilabete hauetan, elkarrekin ibilita, ikusi dugu zer espero dugun haiengandik eta zer espero duten guregandik. Lagunduak sentitzen gara, eta hori oso ona da. Oroitzen naiz abenduan krisi betean nintzela eta bat-batean zeozer gertatzen ari zela. Kasualitatez, bigarren egunean PBIren bisita genuen, eta hauxe esateko ordua zen: *«Konta diezaieket, lagun egin nazakete»*.

Lurra: emakumeak, ahanzturarik handiena jasan dutenak

GUATEMALAN DESOREKA handiak daude lurraren jabetzan, eta bidegabekeria asko gertatzen dira. Hori dela eta, hura beti izan da —eta oraindik ere hala da— faktore gakoa eta konpondu gabea herrialdearen historia guztian. Erdialdeko Amerikako Emakume Nekazarien, Indigenen eta Landa Eremukoen Sareak dioen bezala, *barne gatazkaren arrazoi nagusietako bat lurraren aldeko borroka izan da, eta, hain zuzen, 1996ko Bake Akordioetan, nekazaritzaren auzia konpontzea izan zen gai nagusietako bat. Hala ere, behin ere ez da politika esplizitu bat egin jabetzaren muturreko kontzentrazioaren arazoa konpontzeko, eta lurraren funtzio soziala aitortzeko. Urteak eta urteak daramatza gobernuak politika agrarioak sustatzen [...] eta lurra eskuratzea oso zaila da oraindik; batez ere, emakumeentzat eta herri indigenentzat*[14]. Alde horretatik, Telma Iris Perez Olorosok, Ch'orti' Nuevo Día Nekazarien Zentroko kideak, zera dio, *emakumeek lurra eskuratzea oso konplexua dela. Espainiarren inbasiotik hasi eta Guatemalan izan diren gobernu askotarikoeraino, emakumeok jasan dugu ahanzturarik handiena kontu honetan*[15].

Bake Akordioetan datorrenez, kontuan izan behar dira nolako premiak dituzten emakumeek lurra eta maileguak eskuratzeko, eta diskriminazioa bukatu behar da, baina egiatan oraindik ez dituzten bete akordio horiek, eta lurraren banaketan desoreka dago.

Borroka Armatuak Deserrotutako Herriak Berriz Ezartzeko Akordioa
III. atala, 8. art.:

Gobernuak zin egiten du emakumearen diskriminazio mota oro ezabatuko duela, nola praktikan hala legean, eta lurra, etxea eta mailegua eskuratzeko erraztasuna emango diola, orobat garapen proiektuetan parte hartzeko aukera. Genero ikuspegia txertatuko da garapen globalerako estrategiaren politika, programa eta jarduera guztietan.

Era berean, nahiz eta Guatemalan badagoen Generoaren Politika Nazional bat, non esaten baita emakumeak bermatuak izango dituela *lurraren jabetza, jabekidetasuna, ondasuna, erabilera eta usufruktua izateko aukera*, oraindik hor dirau irizpide etnikoetan eta generozkoetan oinarritzen den desorekak[16].

Emakume errefuxiatuen lan zuhurra

Emakume errefuxiatuek zeresan handia izan zuten barne gatazka armatuan. Mama Maquin erakundeak eginahalak egin ditu emakumeek lurra eskuratzeko eta

14 RECMURIC, *Tierra para nosotras. Propuestas politicas de las mujeres rurales centroamericanas para el acceso a la tierra.* Guatemala, El Salvador eta Nikaragua, 2015.

15 Telma Iris Perez Olorosorik elkarrizketa, 2016ko maiatzak 5.

16 Politica Nacional de Promoción y Desarrollo Integral de las Mujerez y Plan de Equidad de Oportunidades 2002-2023, 31. orr. Guatemala, 2009.

parte hartzeko duten eskubidearen alde, eta eredu bikaina izan da. Erakunde hori 1990ean sortu zuten Mexikon errefuxiatuak izan diren emakume guatemalarrek; erakundearen izena Adelina Caal Maquinen omenez jarri zioten, q'eqchi' liderra bera. Defendatzailea izanik, hil egin zuten beste lagun askorekin batera, Panzosko sarraski lazgarri ezagunean, lurraren eskubideen aldeko martxa baten buruan zihoala. Emakume errefuxiatu horiek ekin zioten Guatemalan emakumeek lurra eskuratzearen eztabaidari, eta horregatik dira ardatz bat gai horretaz ari garelarik[17].

Emakumeek familiaren ekonomian duten erantzukizuna eta, beraz, familiakideen iraupenean duten zeregina, ezin eztabaidatuzkoa da. Hala ere, traba asko izaten dituzte landa garapenean aktiboki parte hartzeko eta zuzenean beren bizimoduari eta beren familiarenari lotuta dauden nekazaritzako politikak ezartzeko. Emakumeen Sareak dakarrenez, *orain dela gutxira arte, ez legerik ez erakunderik zegoen emakumeek lurra eskuratzeko eskubidea babesten zuenik. Neurri handi batean Mexikotik itzuli ziren emakumeen erakundeek presio egin zutelako, FONTIERRAS sorkuntza legeak nahitaezko ezarri zuen jabekidetasun tituluak bi ezkontideen edo bikoteen izenean ezartzea, eta esleipenetan lehentasuna eman zitzaien etxeko buru egiten zuten emakumeei*[18].

Lurren Funtsa, genero ikuspegia duen estatu programa?

Bake Akordioetan nekazaritzaren gaian hartutako konpromisoak betetzeko, FONTIERRAS esaten dioten Lurren Funtsa eratu zen 1999an. Estatuaren mekanismo bat da, lurra salerosteko aukera ematen duena, maileguak emanez andre-gizon nekazariei. 24-99 dekretuaren bitartez ezarri zen, eta, berez, Estatuaren erakunde bakarra da lurra erostea ahalbidetzen duena, genero ikuspegia kontuan harturik.

Hala ere, izatez, Emakumeen Sarearen txostenak dakarrenez, nekazaritzaren munduko eta gizarteko erakunde askok oso kritikatu dute FONTIERRASek egiten duen lana. Nekazaritzako erakundeek erositako lurren kalitate eskasa eta prezio handia salatzen dituzte, eta nabarmena da *lurjabe handi askok hura aprobetxatu zutela beren sailik kaxkarrenak saltzeko, balio dutena baino askoz garestiago. Lur askoren kalitate txarra eta batez ere azpiegitura eta laguntza tekniko falta dela eta, ez zioten behar bezalako probetxurik atera ekoizpenari, eta zorretan sartu ziren*[19]. Horretaz gainera, landa eremuetako herrien aldeko ekintzak falta izan dira, eta desnutrizio tasa handia ekarri du horrek, batez ere umeen kasuan[20]:

17 FIAN Internacional, *R:09 Mujeres toman el poder de la tierra: Acceso ala tierra como una estrategia de empoderamiento de mujeres indigenas en Guatemala.* Alemania, 2007.

18 RECMURIC, Aip. Lan.

19 Ibidem.

20 Castillo, A., *Unicef: Guatemala ocupa el quinto lugar de desnutrición a nivel mundial,* La Hora. Guatemala, 2014ko azaroak 28.

DUINTASUNEZ
Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

Telma Iris Perez Oloroso, Ch'orti' Nuevo Dia Nekazarien Zentraleko kidea. Argazkia: Guatemalako PBI

Ch'orti'-ko lurraldeari dagokionez, auzitara eraman zuten Guatemalako Estatua elikatzeko eskubidea zela eta. Orduan, Guatemalako Estatuak FONTIERRAS presionatu behar izan zuen, lurrak eman ziezazkien elikatzeko eskubidea zela-eta auzitara eraman zituen emakumeei. Izanez ere, hori da janaria izateko dagoen modu nagusia, lurra. Ezin ditugu aipatu janaria, hezkuntza eta ekoizpena, baldin eta ez badugu oinarri nagusia, hots, ura eta lurra. Eta Guatemalako Estatuak eta FONTIERRASek sekula ez dute konpondu ch'orti' emakumeen arazoa, hemen, ch'orti'-en lurraldean.

Thelma Iris Perez Oloroso

Hutsegite nabarmen horiek kenduta, FONTIERRAS da Estatuko erakunde bakarra emakumeei bermatzen eta aitortzen diena lurraren titulua izatea jabekidetasunean. Erakunde horren lanaren esparruan, genero kontuetan egindako ahaleginak ageri dira, hala nola Lurren Errentamenduaren Programa Berezia sortzearena. Axel Lopez FONTIERRASeko gerente nagusiak dio orain arte emakumeak izan direla Errentamenduaren Programaren onuradunetatik %58[21]. Portzentaje honek zera nabarmentzen du, Guatemalan lurra eskuratzen duten emakumeek partzela bat errentan hartuta bakarrik eskuratzen dutela hura, izan ere Errentamenduaren Programak ez baitie baimentzen lurraren jabeak izatea. Jabetza eskuratzeko eskabideak zailak dira, zeren eta, Axel Lopezek dioen moduan, *familia zamak izan*

21 Axel Lopezi elkarrizketa, 2016ko maiatzak 26.

behar dituzte, eta emakume ezkongabeei edo umerik ez dutenei ez zaie baimenik ematen lurrak eskuratzeko, ezta lanbide bat dutenei ere[22].

FONTIERRAS Legeak 20. artikuluan dakarrenez, jabetza titulua bi ezkontideen izenean erregistratu behar da, edo, ezkondurik ez badaude, bikotearen izenean. Hala ere, emakumeek lurra beren izenean edo jabekidetasunean jartzeko baldintzak, baztertzailetzat hartzen dira, zeren eta eskabidetik beretik behartzen dute egiaztatzera nekazariak direla; gainera, lurra nekazaritza elkarte baten enpresa gisa integratu behar izaten dute edo, bestela, kooperatiba gisa edo soslai juridikoa duen beste erakunde mota baten gisa; eta, gainera, gaztelaniaz moldatzeko gai izan behar dute[23]. Azken eskaera horrek emakume gehienak baztertzen ditu; izan ere, lurrak eskatzen dituzten gehienak indigenak dira, eta gaztelaniaz ez den beste hizkuntza batean mintzo dira. Garapenerako Nazio Batuen Programak kalkulatzen du Guatemalan emakume indigenen %80k lotura estua dutela lurrarekin eta oro har nekazaritzarekin. Iturri berean datorrenez, *jabegoetako lurren guztizkoaren %23,6 indigenen esku daude, eta %6,5 inguru emakumezkoen esku daude. Ia %70, berriz, indigenak ez diren gizonezkoen esku. Indigenen jabegoan dauden lurrak ez dira herritarren jabegoan dauden guztien erdia ere, herritarrak historian zehar desjabetu egin izan dituztela eta*[24].

Lege esparrua eta emakumeen egoera: konpondu gabeko kontraesanak

Lurra eskuratzeko eskubidea eta emakumeen eta gizonen berdintasuna Guatemalako Konstituzioan eta legezko beste testu batzuetan dator. Konstituzioaren 4. artikuluak emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasuna ezartzen du, eta Familia Kodeak emakumeek, ezkonduek eta bikotean bizi direnek familia ondarea izateko eskubidea bermatzen du. Beraz, paperean datorrenez, emakumeak eskubidea du ezkontidearen lurrak eskuratzeko edo ondoretzan hartzeko. Praktikan, ordea, oso bestela daude kontuak.

Erabileren eta ohituren bitartez, zenbait eredu matxista transmititu dira belaunaldiz belaunaldi, eta horrek emakumeen diskriminazioa iraunarazten du, eta hor sartzen da lurra eskuratzearena eta izatearena. Gizon bat hiltzen denean, eta «etxeko burua» denean, lurra semeentzat gelditzen da, ez alargunarentzat; alargunak jarrai dezake lur horretan, baina jabea izan gabe, jabe berriak semeak baitira[25]. Edonola ere, Kode Zibilean, familiaren ordezkaritzaz diharduela, bai aitortzen zaie bikoteko bi

22 FIAN, Aip. Lan.

23 Ibidem.

24 PNUD, *Informe Nacional de Desarrollo Humano 2002. Desarrollo Humano, Mujeres y Salud*, Guatemala.

25 Costas, P. koord., *Tierra de Mujeres. Reflexiones sobre el acceso de las mujeres rurales a la tierra en América Latina.* Coalición Internacional para el acceso a la Tierra, Bolivia, 2011.

kideei etxeko burutza eta ezkontzako ondasunen administratzailetza. Eskubide hori 1998 arte gizonezkoei bakarrik aitortzen zitzaien[26], baina ordutik aurrera aldatu egin zuten emakumeak ere kontuan hartzeko. Aldaketa hori eginagatik, praktikan gizona hartzen da familiako burutzat, eta *haren izena agertzen da kooperatibako kide gisa. Pertsona juridikoaren konstituzioaren agirietan, berriz, emakumeak, neskatoak eta mutikoak elkarrekin ageri dira etxeko buruarekin*[27].

Argi dago kontraesan gogorrak ageri direla legeak dioenaren eta egiaz gertatzen denaren artean. Gainera, legezko trabak daude emakumeak lurra eskuratzeko orduan; adibidez, Lanaren Kodeak 139. artikuluan dakarrenez, emakumeak oraindik gizonen laguntzaileak dira nekazaritza formalean; hortaz, horrek gizonak baino beherago uzten ditu.

Traba soziokulturalak

Ana Patricia Castillo Huertasek dioenez, *herri indigenek bestelako harremana eduki dute lurrarekin, ez alderdi filosofikotik bakarrik, baita alderdi materialetik ere. Lurra eta, zabalago hartuta, lurraldea komunitatearen erreprodukziorako oinarria da haientzat; hor dira erroak, arbasoak, bizia, lana, osasuna eta jakintza, kultura eta etorkizuneko aukera*[28]. Landako emakumeek eta indigenek oso lotura estua eta berezia dute lurrarekin. Lorena Cabnalek dio gorputza eta lurra batera doazen eremua direla, eta lurraldearen berreskurapenak eta defentsak gorputza inplikatzen duela defentsarako lehen lur eremu gisa emakumeek eskubideen ezagupena lor dezaten[29].

Landa eremuko komunitateetan, badira zenbait balio kultural eta sozial emakumeen eta gizonen berdintasuna aitortzen ez dutenak lurra izatearen eta eskuratzearen auzian. Landan jarduten duten emakumeek beren zeregina dute familiako esplotazioetan, eta, *rol tradizionalen arabera, gizonena da erantzukizun nagusia, eta emakumeak bigarren mailako langileak dira; hala, emakumeen zeregina da etxeko diru sarrerak osatzea edo soldatarik gabeko familiakidea izatea edo autokontsumorako ekoizlea izatea eta ezkutuan gelditzea*[30]. Horrela, eredu patriarkalak generoaren araberako rolak definitzen eta banatzen ditu. Era berean, zenbait herrialdek *jarraitzen dute emakumeek nekazaritzako ekoizle izan daitezkeela aitortu gabe; horren arabera, familia-unitate batean izaten dituzten*

26 FIAN, Aip. Lan.

27 Ibidem.

28 [15] Castillo Huertas, A.P., *Las mujeres y la tierra en Guatemala: entre el colonianislo y el mercado neoliberal.* Editorial Serviprensa. Guatemala, 2015.

29 Cabnal, L., *Acercamientos a la construcción de la propuesta de pensamientos epistémicos de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala, Feminismos diversos: el feminismo comunitario* lanean. ACSUR las Segovias. Madril, 2010.

30 RECMURIC, Aip. Lan.

Maria Corina Ramirez, Guatemalako Eliza Luteranoko kidea
Argazkia: Guatemalako PBI

zeregin guztiak etxeko lanen hedapen bat balira bezala gelditzen dira. Horren ondorioz, nekazaritzako subjektua nagusiki gizonezkoa dela ulertzen da[31].

Elkarrizketatutako emakumeek nabarmentzen dute matxismoa traba handia dela emakumeek lurra eskuratzeko orduan. Maria Corina Ramirezentzat[32] zailtasuna zera da, *gizonarengan beti dagoela matxismoa, eta esaten digutena hauxe da: «Hori emakumea da, eta ez da lurrarena». Objektu bat bagina bezala begiratzen digute, eta bakarrik nahi gaituzte sexurako, etxeko lanak egiteko, umeak izateko eta ez digute aitortzen egiaz balio duguna.* Telma Iris Perez Olorosok antzeko ideia bat adierazten du; haren ustez, *komunitate askotan, emakumeak beldur dira, lotsa sentitzen dute beren eskubidea aldarrikatzeko orduan. Emakumea emakumea denez etxekoa da, ofiziokoa, traste garbitzailea eta ez zaio behin ere ematen parte hartzeko eta hezkuntzarako espaziorik.*

Artikulu honetan deskribatu duguna emakumeentzat beltza izan arren, badago baikortasunerako eta esperantzarako espaziorik. Adibide bat baino gehiago daude. Axel Lopezek bi faktoreren lankidetza aipatzen du, FONTIERRASena eta *Tejiendo Fuerzas para el Buen Vivir* Artikulazio Nazionalean diharduten 50 bat emakume-erakunderena; horiek emakumeen ikuspegia txertatu nahi dute programetan, lurra errazago eskura dezaten. Gainera, zenbait nekazari erakundetan emakumeak gaitzen ari dira, eta Telma Iris Perez Olorosok aipatu bezalako emaitzak edukitzen ari dira: *emakumeok ez dugu lur zatirik, baina borroka horretan ari gara; batzuek berreskuratu dute, eta lanean ari dira beren partzelan dibertsifikatzeko eta, hala, zer jan izateko berentzat, familiarentzat eta komunitatearentzat.*

31 Ibidem.

32 Maria Corina Ramirezi elkarrizketa, 2016ko maiatzak 5.

Niretzat, lurra da bizia; sakratua da. Sortu egiten gaitu, maite gaitu, eta bizia, ura eta airea ematen dizkigu. Izan ere, lurrik ez badugu, ez dugu izango arbolarik, urik, airerik... Ez dugu izango kontsumitzeko behar duguna, artoa, babarrunak, arrainak, oiloak. Emakumeontzat lurra berezia da, gure sabela balitz bezalakoa. Emakumearen sabelak umea sortzen dituen bezala, lurrak ere bizia sortzen du.

Maria Corina Ramirez

Niretzat, lurra ama da. Jaten ematen didana, egunero besarkatzen nauena, hornitzen eta sendatzen nauena. Horregatik esaten diogu Ama Lurra. Egunero-egunero mantenua ematen diguna da; hortik ateratzen ditugu babarrunak, artoa eta gure gorputzentzako sendabelarrak, gure belarrak.

Telma Iris Perez Oloroso

Giza eskubideen emakume defendatzaileak babesteko sareak ehuntzen

"Emakumea, Bakea eta Segurtasuna" esparrua eta beste babes mekanismo batzuk

2016KO URRIAREN 17AN ETA 18AN, Nazioarteko Bake Brigadak nazioarteko mintegi bat antolatu zuen Bartzelonan eta Madrilen —*Seminario Internacional Tejiendo redes para la protección de mujeres defensoras de derechos humanos. El marco «Mujer, paz y seguridad» y otros mecanismos de protección* izenekoa—, honako talde hauen eta beste batzuen[33] laguntzarekin: Calala Fondo de Mujeres, Front Line Defenders, JASS Asociadas por lo Justo eta Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimena (IM-Defensoras).

Giza eskubideen zabalkunde, promozio eta defentsarako jarduera-proiektu batetik sortua da mintegi hori; hura aurrera ateratzeko laguntza eman dio Espainiako Gobernuaren Kanpo Arazoetarako eta Kooperaziorako Ministerioak duen Kanpo Arazoetarako Estatu Idazkariak. Beste erakunde publiko batzuen laguntza ere jaso zuen, hala nola Garapenerako Lankidetzaren Agentzia Espainiarrarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarena eta Garapenerako Lankidetzaren Agentzia Katalanarena.

Mintegiaren xedea hauxe zen: emakume defendatzaileek nolako egoerari aurre egin behar dioten ulertzea eta gogoetatzea; erakundeak sentsibilizatzea, kolektibo horrek jasaten duen diskriminazio bikoitza dela-eta nazioarteko akordioak bete ditzaten; eta elkartasun sareak indartzea babes neurri gisa. Han izan ziren Erdialdeko Amerikako eta Kolonbiako giza eskubideen defendatzaileen ondoan giza eskubideen akademikoak eta adituak, Europako Parlamentuko kideak eta gizarte zibileko erakundeetako ordezkariak. Gainera, mintegiaren irekieran, Espainiako Estatu Idazkaritzako eta Agentzia Espainiarreko ordezkariek aurkezpen bat egin zuten Espainiako Estatuak giza eskubideen arloan hartuak dituen konpromisoetako batzuk aurkezteko eta orobat defendatzaileak babesteko nazioartean duen kooperazioa azaltzeko.

Artikulu honetan mintegiko lan-mahaietan landu ziren edukiak laburtu ditugu, eta hala berean aipatzen ditugu ondoren sortutako eztabaidak eta gogoetak, batzuek ikusleek berek eginak.

Lehenbiziko mahaian aztertu zen **giza eskubideen emakume defendatzaileei nola urratzen zaizkien giza eskubideak**; hor ikusi ahal izan zen indarkeria bortitzari eta diskriminazioari aurre egin behar diotela giza eskubideen emakume defendatzaileek, batez ere Erdialdeko Amerikan. Mahaia abiatzeko, Gladys Lanzari omenaldia egin zioten, eta IM-Defensoras erakundearen bideo bat eman zuten, «Gracias, Gladys».

33 Paz con Dignidad elkartea, Mundubat fundazioa, Madrid Paz y Solidaridad fundazioa, Cooperacció, Movimiento por la Paz, Alianza por la Solidaridad, Comisión de Derechos Humanos Hispano Guatemalteca, Entrepueblos, Espainiako Giza Eskubideen Aldeko Elkartea, Investigación y Especialización sobre Temas Iberoamericanos elkartea, Defenred, Suds, Amigos de la Tierra eta Iniciativas de Cooperación Internacional al Desarrollo.

IM-Defensoras taldearen lana aurkeztu zen, gaur egun Hondurasko, Guatemalako, El Salvadorko eta Nikaraguako defendatzaileen Sare Nazionalak osatua; 750 emakume defendatzaile artikulatzen dituzte, beren aurka ugaritu den indarkeriari era integralean aurre egiteko.

Haien ekarpen handien artean, hor dago IM-Defensoras taldeak sortu duen erregistro sistema, Erdialdeko Amerikan gertatzen diren erasoak erregistratzeko eta kokatzeko balio duena; horrela, diagnostiko bat egin ahal dute, eta datu estatistikoak ateratzen dituzte genero ikuspegiko analisiak egiteko, bai defendatzaileen kontrako erasoena eta bai babes premiena.

Erdialdeko Amerikan 2012-2014 bitartean egindako txostenean datorrenez, aldi horretan 1.688 eraso izan zituzten giza eskubideen emakume defendatzaileek El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon; horrek esan nahi du %45,7 igo zela eraso kopurua. Erregistratuta dauden erasoen %37tan genero ezaugarriak identifikatu ziren, eta estatuko aktoreek eginak izan ziren defendatzaileek pairatutako eraso horietatik gehienak (kasuen %66).

IM-Defensoras taldearen txostenean, nabarmentzekoa da lurraren eta lurraldearen defendatzaileak direla gehien pairatu dutenak; guztira, erasoen %38. Alde horretatik, nabarmendu zuten eraso horietako asko enpresa nazionalek eta nazioartekoek egindako inbertsio-proiektu handien bueltan gertatu zirela, beharrezkoa izanik enpresen erantzukizuna zaintzea, izan ere, horiek behartuta baitaude giza eskubideak errespetatzera, NBEk enpresen eta giza eskubideen gainean ezarrita dituen Printzipio Gidarien arabera.

Gai horietaz gain, atera zen emakumeen eta defendatzaileen kontrako indarkeriak eragin sakona izaten duela gizarteetan, eta kontrol sozialerako, desmobilizaziorako eta beldurrerako mekanismo boteretsua dela. Alde horretatik, kezka agertu zuten defendatzaileen zeregina zigortzeko eta galarazteko gero eta gehiago erabiltzen dutelako kriminalizazioa eta judizializazioa, eta aipatu zen oinarrizko baldintza dela bakea eta demokrazia sendotuko badira emakumeen eta defendatzaileen eskubide guztiak errespetatuak izatea.

Horrez gain, beste kontu batzuk ere landu ziren, hala nola garrantzitsua dela defendatzaileak eta babesari genero ikuspegia txertatzen dioten erakundeak ahalduntzen laguntzea, eta beharrezkoa dela baliabideak jartzea defendatzaileen erakundeek beren lanak egin ditzaten.

Mexikori dagokionez, mahaian agertu zen genero indarkeria estrukturala dela han, eta ez dela behar adina baliabide jartzen horri aurre egiteko. Hala berean, balioa eman zioten emakumeen eta defendatzaileen lanari, zeren eta beren mobilizazioari esker babes mekanismoak arautu eta ezarri baitira. Hala berean, azpimarratu

DUINTASUNEZ
Emakumeak amets egiten, ehuntzen, bakea sortzen

zen zenbaterainoko zigorgabetasuna dagoen; aipatu zuten kasuak ez badira ikertzen eta ez badira zigorrak jartzen berriz gertatuko direla erasoak. Gaur egun, defendatzaileek erasoak izaten dituzte, mehatxuak jasaten, eta arriskutan jartzen dira, eta, horrela, ezin dute aplikatu giza eskubideak libreki defendatzeko eskubidea. Hondurasko kasuan, nabarmendu zuten Defendatzaileen Sare Nazionaleko kideen %45ek heriotza mehatxuak izan dituztela eta 2016an 388 emakume hil zituztela. Gainera, indarkeriarako eta defendatzaileei espazioak ixteko giro honetan, Hondurasek Zigor Kodea erreformatu beharra du, eta, erakundeek diotenez, ondorioa izango luke giza eskubideen defentsa aplikatzeko orduan; hala, kalte egingo lioke adierazpen askatasunari, manifestaziorako eta elkartzeko eskubideari eta emakumeen eta lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen komunitatearen eskubideei.

Bigarren mahaian, bi gai landu zituzten, **1325 Ebazpena eta emakumeen babesa gatazka armatuetan eta gatazka-ondoko egoeretan.** 2000. urteko urrian NBEko Segurtasun Kontseiluak emakumeen, bakearen eta segurtasunaren gaineko 1325 Ebazpena onartu zuenean, inflexio puntu bat gertatu zen, izan ere emakumeak eta genero ikuspegia sartu baitziren nazioarteko komunitatea bakea eraikitzeko egiten ari den ahaleginean. 1325 Ebazpena ahalegin handiz lortu zen; hor inplikatu ziren emakumeen erakundeak, eta lortu zuten Emakumeen, Bakearen

«Emakume defendatzaileen babeserako sareak ehuntzen» mintegiko argazkia.

eta Segurtasunaren agenda onartzea nazioarteko eremuan; horrela, betebehar sail bat ezarri zen NBErentzat, Estatuentzat eta gatazka batean izaten diren estatuz gaindiko aktoreentzat. Eta hori guztia noiz erdietsi da, eta «nazioarteko zuzenbide humanitarioaren xedapen guztiak osorik aplikatzen hasi direnean; eta orobat emakumeen eta haurren eskubideak gatazketan eta gatazken ondoren babesten dituzten giza eskubideen gainekoak aplikatzen hasi direnean».

2015eko urrian, goi mailako berrikuspen bat egin zuten, eta zortzigarren ebazpena onartu zuten, 2242.a hain zuzen; horrek aurrerapen bat ekarri zion agendari, gizarte zibila gehiago inplikatzearen garrantzia nabarmentzen baita. Era berean, ebazpenak dioenez, finantzabide handiagoa eta hobea behar da, eta funts jakinak behar dira genero berdintasunerako eta emakumeen ahalduntzerako. Testuinguru horretan, dei egin diete estatuei, eskualdeetako erakundeei eta Nazio Batuen entitateei, orain arteko Ekintza Planak berrikus ditzaten eta bultzada handiagoa eman diezaioten.

Ondoren, Ekintza Plan Nazionalak aztertu ziren, horiek izan baitira mekanismo nagusiak 1325 Ebazpena onartu zenetik hura martxan ezartzeko orduan; izan ere, horrek modua ematen die gobernuei zehazteko zer-nolako politika eta prozesuak gauzatu behar dituzten helburuak eta xedeak betetzeko eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda ezartzeko. Esan gabe doa, Ekintza Plana onartuta egonik ere ez direla 1325 ezartzen hasi; horregatik, inportantea eta beharrezkoa da gizarte zibila hor egotea eratze fase guztietan eta orobat haren segimendua eta zainketa egiteko orduan.

Era berean, aipatu zuten garrantzitsua dela Ekintza Plan Nazionalei diru eta giza baliabideak ematea. Agenda ezartzeko eta emakumeen erakundeetarako dirua eskas dago, eta horrek erakusten du gobernuaren konpromisoak meheak direla. Hala berean, premiazkotzat jo zen giza eskubideen emakume defendatzaileak babesteaz kezkatzea emakume, bake eta segurtasun agendaren esparruan. Azken mahaian, berriz, zera aztertu zen, zer-nolako pausoak eman diren **mekanismo eta tresna nazionalak, eskualdeetakoak eta nazioartekoak ezartzeko eta zer dagoen egiteko** emakume defendatzaileak babesteaz denaz bezainbatean.

Aitortu zen aurrerapausoak izan direla azken urteetan, zeren eta nazioarteko zenbait mekanismo eta tresna onartu baitira emakumeek sufritzen duten bereizkeriari eta indarkeriari aurre egiteko. Hasi 1979ko **Emakumeen Aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Hitzarmenetik** eta segi NBEren Segurtasun Kontseiluaren Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenarekin eta buka NBEren giza eskubideen defendatzaileak babesteari buruzko 2013ko azaroko Batzar Nagusiko Ebazpenarekin. Nabarmendu dutenez, horiek denak emakumeen eta feministen erakundeek egindako lan bikain eta gogorrak ekarri ditu; haiei esker

behartu baitira estatuak eta nazioarteko erakundeak beren ardura hartu eta arazoari aurre egitera.

Aipagai izan zen **NBEren Lantaldea legedian eta praktikan emakumeen bereizkeriaren gaiarekin egiten ari den lana**, eta garrantzia eman zitzaion, bere mugak izanda ere sarbide bat delako deklarazioak egiteko eta Giza Eskubideen Kontseilura txostenak igortzeko orduan.

Era berean, zera nabarmendu zen, zeinen garrantzitsua den **Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileak Babesteari buruzko Ebazpena, Nazio Batuek Batzar Nagusian** 2013ko azaroan onartua. Tresna horrek zenbait xedapen ditu, arlo juridikoan oinarritzat dutenak emakumeen diskriminazioa ezabatzeko Hitzarmena eta giza eskubideen hitzarmen nagusiak; horrek nahitaezkotasun juridikoaren izaera ematen die. Ebazpen horrek agerian uzten du nolako arriskuak, bereizkeria eta indarkeria espezifikoak jasaten dituzten emakume defendatzaileek eta/edo beren lana egiteko emakumeek duten eskubidea defendatzen dutenek. Ebazpenak dakarrenez, defendatzaileek segurtasuna izan behar dute beren lana murriztapenik eta mehatxurik —ez berentzakorik ez beren senideentzakorik— jaso gabe gauzatzeko, eta Estatuek konpromisoa hartu behar dute neurri espezifikoak aplikatzeko. Beste xedapen batzuk ere baditu aitortzen dutenak nolako lan inportantea egiten duten emakume defendatzaileek bakea, justizia eta berdintasuna eraikitzeko. Beste kontu bat ere ezartzen du: Estatuak behartuta daude ekimenetan genero ikuspegia txertatzera ingurune segurua eta aproposa eratzeko giza eskubideen defentsan, orobat emakumeen kontrako indarkerian oinarritzen diren eredu soziokulturalak molda daitezen neurriak hartzeko.

Aipagai izan zen Nazio Batuen gobernu arteko Lantaldea —2015ean sortua— giza eskubideen arloan gauzatzen ari den lana nazioz gaindiko enpresen eta beste enpresa komertzial batzuen inguruan. Talde horren ardura da **nazioarteko tresna juridikoki lotesle bat sortzea giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen esparruan, nazioz gaindiko eta beste enpresa batzuetako jarduerak arautzeko eta etorkizunean giza eskubideak defendatzen dituztenen babes mekanismo berri eta garrantzitsu bat izateko.**

Europaren arloan, **Europar Batasunak giza eskubideen defendatzaileei buruz dituen jarraibideak** landu ziren, 2004an Europako Kontseiluan onartuak. Tresna horrekin, EB eta Estatu kideek lehentasun politikoa eman zioten horrelako pertsonak babesteari. Jarraibideek iradokizun zehatzak egiten dituzte defendatzaileen babesaren arloan, bai beste herrialdeekiko harremanetan eta bai instantzia multilateraletan. Alde horretatik, zera aipatu zen, enbaxada batzuek aplikatzen badituzte ere eta pertsona defendatzaileen segurtasunean eragina duten ekintzak ezartzen badituzte ere maizago egin behar liratekeela segimenduak eta zaintzak defendatzaileak arriskuan diren testuinguruetan ari direnean.

Adibidez, lantokiak eta bulegoak bisitatzea eta tokian-tokian bisita gehiago egitea, lehentasuna emanez talderik zaurgarrienei, hala nola emakume defendatzaileei, komunitate indigenei eta bakartuta eta urruti dauden komunitateei. Horrez gain, lehentasuna eman behar zaio prebentziozko ikuspegi bat izateari, nola eta hitzaldi publikoak emanez kasu eta arazo espezifikoen gainean, eta orobat bilerak eta topaketak antolatzea emakume defendatzaileekin.

Esan zuten ahulgune bat duela Europako Parlamentuak erakunde gisa, zeren eta giza eskubideak lantzen diren organoak ez baitu Batzorde izaerarik baizik eta Azpibatzorde izaera. EBren arloari dagokionez, kezka azaldu zuten armadaren inguruan eta giza eskubideen errespetuaren inguruan merkataritza akordioak diren herrialdeetan, izanez ere, EBk beste herrialde batzuekin dituen merkataritza akordioak gorabehera, praktikan oso zaila baita horien segimendua egitea. Gizarte zibilean badira erakundeak horien inguruko salaketak egiteko, baina ez dute eman akordioak berrikusteko adinako emaitzarik.

Babes mekanismo nazionalen gaia lantzeko espazio bat ere izan zen, eta bertan analizatu zen, batetik, ea efikazak izaten ari ote diren eta, bestetik, ea baduten emakume defendatzaileen premia espezifikoei kasu egiteko behar den genero ikuspegirik. Azaldu zenez, azken urteetan, gizarte zibilaren lan eskerga dela eta, Latinoamerikako Estatu batzuek martxan jarri dituzte zenbait mekanismo giza eskubideen defendatzaileak babesteko, eta, ezarpen aldi baten ondoren, ikusi dute jardunbide onak badiren bezala badirela halaber ahulgune garrantzitsuak ere.

Nabarmendu behar da badirela indarkeria mota batzuk defendatzaileek sufritzen dituztenak eta ez daudenak mekanismo horietan jasoak. Adibidez, eragile pribatu zein publikoen aldetik defendatzaileen kriminalizatzea, estigmatizatzea eta zilegitasun kentzea. Gainera, ez dira lantzen indarkeria askotarikoek nolako eragina duten defendatzaileen bizitzan. Oso ikuspegi murritza dute, eta ia esklusiboki alderdi fisikoa babesteaz arduratzen dira. Babes neurriak, kasurik gehienetan, defendatzailea kontuan hartu gabe hartzen dira, eta emakume defendatzaileen premiekin eta haien antolaketa prozesuarekin logikarik ez dutenak izaten dira. Segurtasun eskema bat inposatzen dute, eta askotan babesik gabe gelditzeaz gain biktimago ere bihurtzen dira neurriokin. Babes mekanismoen beste hutsune nabarmen bat zera da, oso izaera indibidualista izaten dutela, eta ahaztu egiten da defendatzaile gehienek era kolektiboan egiten dutela beren lana eta bati erasotzen diotenean erakundea, kolektiboa edo komunitatea geldiaraztea izaten dela helburua. Era berean, kasu askotan kolektibo osoari erasotzen zaio, eta, kolektiboarentzako babes neurriak hartu beharrean, banakako neurriak hartzen dira, eta ez dute taldea babesteko balio izaten, pertsona jakinak babesteko baizik.

Analisian ikusi den beste hutsune esanguratsu bat zera da, gauzak gertatzen direnean funtzionatzen dutela mekanismoek eta gertaerok ez direla fenomenotzat hartzen, zeren eta gizarte zibileko erakundeek, aztertu dutenean nolakoak diren

giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeria ereduak, ikusi dute antzekoak direla Latinoamerika osoan, eta horrek babes eta prebentzio lerroak ezartzeko aukera ematen du. Orobatsu azaldu da gizarte zibilaren beste kritika inportante bat: mekanismoek, oro har, erreakzio gisa jokatzen dute, hau da, defendatzailea erasoa izan ondotik. Hori beharrekoa izanik ere, mahaian planteatu zen inola ere ez dela nahikoa ez bada prebentzio estrategiekin bateratzen. Sakoneko arazoei ere ez zaie aurre egiten, hala nola herrialde batzuetan dagoen zigorgabetasun tasa handiari, edo besterik gabe ez zaie ekiten defendatzaileen aurkako indarkeria kasuei. Horrela, Estatuaren erantzuna gero eta handiagoa izatea sustatzen da, eta babes mekanismoek artatu behar dituzten kasuen kopuruak gora egiten du. Kontu horiek guztiek erakusten dute babes mekanismoak eskasak eta ustelak direla, nahiz eta badiren arrakastatsuak izan diren esperientziak ere.

Adierazi zuten egoera horrelakoa dela analisia ikuspegi orokorretik eginda baina konplexuagoa dela emakume defendatzaileez ari garela. Lehenago aipatu bezala, ez da kontuan hartzen emakume defendatzaileak kriminalizatu eta estigmatizatu egiten direla. IM-Defensoras taldeak egindako erregistroen arabera, hain zuzen, kriminalizazioa eta estigmatizazioa nabarmentzen dituzte emakume defendatzaileen kontrako indarkeria mota nagusi gisa. Bestalde, emakumeei zeren beldur diren galdetzen badiegu gehien erantzuten dutena da indarkeria sexualarena edo horrekin zerikusia duen zerbait, eta babes mekanismo gutxi aurkitzen dituzte kontu eta beldur horiei aurre egiteko.

Azpimarratu zenez, hobekuntzak izan dira familiaren arloan, eta hori oso garrantzitsua da emakume defendatzaileentzat, zeren eta haietako askok bakardadean hazi behar izaten dituzte umeak, edo gaixoak edo jende adindua zaindu behar izaten dute, eta abar. Emakume defendatzaileak ere erasoak izaten dira familia jotzen dutenean, eta, esan bezala, arlo horretan badira aurrerapen batzuk, babes taldeetan familiak ere sartu dituztelako. Funtzionarioen jardunbidea ere hizpide izan zen, eta ikusi zen aurreiritziek eta bereizkeriak jotako ekintzak gertatu zirela. Zenbait prozesutan defendatzaileei egozten zieten errua, eraso bat gertatzeko moduagatik, «zeren eta etxean gelditu izan baziren senarrekin eta seme-alabekin ez zitzaien holakorik gertatuko». Ez da arraroa prozesu batzuetan emakume defendatzaileei egoztea errua bere seme-alabei eraso egiten dietenean. Horrelakoek erakusten dute emakume defendatzaileen kasuan indarkeriaren eragina bestelakoa izanagatik babes mekanismo nazionalek oro har ez dutela tresnarik genero ikuspegia txertatzeko aipatutako kontu horietan denetan esku har dezaten.

Mahaian, era berean, azaldu zen gizarte zibiletik zer-nolako babes tresnak sortu diren defendatzaileentzat. Alde batetik, **Nazioarteko Bake Brigadek egindako laguntza eta ikuskapen internazionala** aurkeztu ziren. Beste alde batetik, **herrietako defendatzaileek, erakundeek eta komunitateek arriskuan direnean**

autobabeserako nolako ekimenak eta mekanismoak abiatu izan dituzten azaldu zen, horien premia izaten baitute Estatuen babes mekanismoek aski bermerik ematen ez dietenean. Kontuan izan behar da herrialde barruan sei milioi pertsona desplazatuak izan direla, eta bortizkeriagatik desplazatutako zenbait komunitatek beren lurretara itzultzea erabaki zuten; hala, Estatuak babesik ematen ez zienez, autobabeserako mekanismoak sortu zituzten, beren antzinako lurretara itzuli eta bertan gelditzeko. Landa-eremuan ezarritako mekanismoetako bat **Eremu Humanitarioak** izan dira; autobabeserako eredu horretan, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren araudiari jarraitzen diote, eta, zehazki, bizitzeko eskubidearenari eta barne-gatazka armatuen esparruan zibilak eta borrokalariak desberdintzeko eta gizarte zibila babesteko printzipioari. Kolonbiako legedian ere bermatzen dira, besteren artean esaten baita «bakea eskubide bat» dela. Gainera, Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoak babestu egin du Chocoko Uraba landa-eremuan Eremu Humanitarioak sortzea, «biztanleria zibila eremu horretako talde armatuen ekintzetatik babesteko mekanismo ona» delako. Hastapenetan, jendea era kolektiboan itzuli ahal izan zen. Lurralde horietara joaten denak fisikoki ikusten du sareekin eta pankartekin toki horiek esklusiboki herritarrenak direla eta debekatuta dagoela legez zein legez kanpo armatutako ekintzaileak sartzea; beren bizitzaren, eskubideen eta lurraldearen alde borrokatzen diren komunitateak babesteko egokia delakoan egin zuten hori.

Mexikoko kasuak aipamen berezia izan zuen; zehazki, **Herri Indigenen Batzarrek;** babeserako komunitate sare gisa funtzionatzen baitute. Oaxacako Estatuan, Batzarra organo politiko bat da, herri indigenei autodeterminaziorako eskubidea eta beste eskubide batzuk ematen dizkiena herri indigena diren aldetik.
2007an autogobernu egitura hauek berreskuratzen hasi ziren, eta protesta eta erresistentzia antolatzen, haize energiaren sorkuntzarako megaproiektuen aurka egiteko (nabarmentzekoa da enpresa horietako asko Espainiakoak direla). Lurra eta lurraldea defendatzen duten indigenak dira gehien jo dituzten kolektiboetako bat. Zehazki, herri batzar horietan aritzen diren kideak jo dituzte hainbat erasotan. Gatazka testuinguru horretan dihardute indigena horiek, eta azkenerako batzarrak beste premia batzuk betetzen joan dira beren kideak babestu aldera. Sarea piztu egiten da mehatxuren bat edo larrialdiren bat gertatzen denean. Jarduera aski soilak dira, hala nola telefono zaintzak egitea, batzarren egoitzetan edo etxeetan susmagarri den norbait zainketa egiten ari delako informazioak partekatzea, edo Ministerio Publikoan salaketak egiten laguntzea edo salaketak jartzea, edo Mexikoko Gobernuari eta Nazioarteko Komunitateari begirako ekintza urgenteak gauzatzea. Espazio horietan gizon-emakumeek beren burua trebatzen dute giza eskubideetan, eta ekintza estrategiak ezartzen ikasten dute. Emakumeak ahalduntzeko espazioak dira.

Autobabeserako mekanismo horiek, landa eremuetan eta toki bakartuetan sortuak, komunitateen babeserako premiak estaltzen ari dira, eta iristen dira estatuko babes

mekanismoak iritsi ez diren tokira. Beraz, aitortuak egon behar lukete bai estatuko agintarien eskutik eta bai nazioarteko komunitatetik.

Mintegiko mahaietan parte hartu zutenak: **Adela Diaz andrea**, Kanpo Arazoetarako eta Kooperaziorako Ministerioko zuzendaria Giza Eskubideen bulegoan; **Elisa Nieto andrea**, Garapenerako Nazioarteko Lankidetza Agentzia Espainiarreko burua Generoaren Unitatean; **Alda Facio andrea**, Aditu independentea eta emakumearen diskriminazioaren aurka egiteko Nazio Batuak duen Lantaldeko Presidentea; **Dina Meza andrea**, Hondurasko Demokraziaren eta Giza Eskubideen Aldeko Elkarteko zuzendaria; **Imelda Marrufo andrea**, Ciudad Juarezko Emakumeen Mahai Sareko koordinatzailea, kidea da Mexikoko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sarean eta IM-Defensoras taldean; **Andrea Torres Bautista andrea**, Nydia Erika Bautista Fundazioak Kolonbiako Giza Eskubideen alde egiteko duen koordinatzaile juridikoa; **Marusia Lopez andrea**, JASS global Botere eta Babes Eremuaren koordinatzailea, IM-Defensoras taldeko kide den erakundea; **Maria Martin andrea**, JASS Mesoamericaren Programetako ofiziala, IM-Defensoras taldeko kide den erakundea; **Manuela Mesa andrea**, Giza Eskubideei, Demokraziari eta Bake eta ez-bortizkeriazko Kulturari buruzko Unibertsitate Institutuko zuzendari ondokoa ; **Maria Villellas andrea,** Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Cultura de Pauko Eskolako ikertzailea; **Francesca Nugnes andrea**, Nazioarteko Bake Brigadetako Gertaeren Koordinatzailea - Kolonbiako PBI; **Mar Saiz andrea**, Nazioarteko Bake Brigadetako Gertaeren Koordinatzailea - Mexikoko PBI; eta **Lola Sanchez andrea**, Nazioarteko Lankidetza Garapen eta Merkataritzako batzordeetako kidea Europako Parlamentuan.

Ondorioak eta gomendioak

GIZA ESKUBIDEEN EMAKUME DEFENDATZAILEEK diskriminazio baldintzetan dihardute lanean, beren eskubideak urratuak dituztelarik. Nazioarteko komunitateak babesa ematen badie legearen barnean egiten duten eta zilegi den lanean, horrek kostu politikoak ekar liezazkieke mehatxuak egiten dizkietenei eta haien aurka indarkeria darabiltenei.

Horregatik, hauxe eskatzen diegu Europako Batasunari eta Estatu kideei:

1. Elkarrizketa politikoak izaten dituztenean, beste herrialdeetako gobernuei eska diezaietela defendatzaileen bizitza eta osotasuna errespetatzeko eta haiei erasotzen dietenak ikertzeko eta zigortzeko. Inportantea da zein egoeratan dauden bereziki azpimarratzea, izan ere, generoa dela eta, beren kide gizonek dituztenez bestelako pairamenak izaten dituzte; horregatik, kontuan hartu behar dira "diskriminazio faktoreak", eta haietan espezifikoki eragin.

2. Publikoki aitortu behar da nolako lan eskerga egiten ari diren emakume defendatzaileak gizarte demokratikoetan, orobat kondenatu behar da beren lana gutxiesten dituzten adierazpide publikoak eta haien aurka egindako urraketak.

Munduko toki askotan, emakumeek giza eskubideen alde egin duten lana ezkutuan gelditu da, aitorpenik jaso gabe. Berdin gertatzen da beren lanean eragina duten urraketa, arrisku eta faktore mugatzaileekin. Horregatik, identifikatu eta ulertu behar da zer-nolako gehiegikeria espezifikoak jasaten dituzten generoa dela eta. Alde horretatik, hauxe eskatzen diegu EBri eta estatu kideei:

3. Aitortu zigor zuzenbidea oker erabiltzea estrategia bat dela giza eskubideen emakume defendatzaileen ekintza eremua txikitzeko; horregatik, babes tresnen esparrutik, erantzun bat jaso behar lukete, beren lana egiteagatik beste edozein mehatxu eta eraso izaten denean bezala.

Globalizazio honetan, giza eskubideen defendatzaileak gizarte mugimendu askorekin egon dira, politika neoliberalak kolokan jartzeko eta gobernuen babesarekin ezarritako inbertsio proiektu handiak salatzeko. Emakume defendatzaileek mehatxuak eta jazarpena sufritzen dituzte lan eskubideak bermatzearen alde egiteagatik, herri indigenen eskubideen alde egiteagatik, ingurumen eskubideen alde egiteagatik eta beste hainbat arrazoirengatik. Hauxe gomendatzen diegu EBri eta estatu kideei:

4. Jarri arreta berezia giza eskubideen defendatzaileek beren lana egiteagatik jasan dituzten erasoei eta mehatxu kasuei egoitzak estatu kideetan dituzten konpainia ekonomikoen inbertsioen testuinguruan. Inportantea

da defendatzaile horiek babestearena lehentasunezkoa dela ulertzea eta hori bera beste herrialde batzuetan giza eskubideak zuzenean edo zeharka urratzen dituzten enpresei helaraztea.

5. Hartu neurriak Nazio Batuen Erakundeak Enpresei eta Giza Eskubideei buruz ezarriak dituen Printzipio Gidariak aplikatzeko eta babesa nola eman landuko duten Ekintza Plan Nazionalak egiteko, eta orobat aitortzeko premiazkoa dela enpresen sektorean arau lotesleak ezartzea giza eskubideen babesean duten erantzukizuna har dezaten, edozein dela ere jardunean diharduten herrialdea.

6. Kontuan hartu edozein hitzarmen komertzial eta ekonomikotan giza eskubideak errespetatu behar direla eta zigorgabetasuna borrokatu behar dela lehentasunez, horiek betetzen direla ziurtatuko duten segimenduak eta ikuskaritzak ezarrita.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenak aitortzen du emakumeek zeregin funtsezkoa dutela bake prozesuetan, eta estatuei dei egiten die haien aldeko babesa handitzera, gatazka armatuetan eta gatazka ondoko egoeretan jasaten duten indarkeria dela eta. Hauxe gomendatzen diegu EBri eta estatu kideei:

7. Aholkatu beste gobernuei martxan jar dezaten Ekintza Plan Nazional bat, bermatzeko 1325 Ebazpena emakumeen eta gizarte zibilaren parte hartzearekin ezarriko dutela, hala hura diseinatzeko orduan nola betetzen dela zaintzeko orduan.

8. Ekintza Plan Nazionalek arreta berezia jarri behar dute giza eskubideen emakume defendatzaileak babesteko.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Ebazpen bat onartu zuen 2013ko azaroan Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileak Babesteari buruz, defendatzaileek izaten dituzten arriskuak, diskriminazioa eta indarkeria espezifikoak aitortzen dituena, eta Estatuei eta gizarteei dei egiten die horiek modu eraginkorrean babesteko ardura har dezaten. Hauxe gomendatzen diegu EBri eta estatu kideei:

9. Eman hedapen handia giza eskubideen emakume defendatzaileei buruz NBEren Batzar Nagusiak atera duen ebazpenari.

EBk giza eskubideen inguruan atera dituen Zuzentarauek eta EBk emakumeen kontrako indarkeriari buruz atera dituen Zuzentarauek tresna sail bat proposatzen dute gobernuek eta enbaxadek horiek erabil ditzaten. Hona zer egin behar duten EBk eta estatu kideek:

10. Sustatu Europan EBk genero ikuspegiarekin giza eskubideen defendatzaileen arloan aterata dituen Zuzentarauak ezartzea eta maiztasunez giza eskubideen emakume defendatzaileekin kontsultatzea. Emakume defendatzaileen parte hartzea bermatu behar da espazio horietan, zeintzuk, generoa eta etnia direla edo hiriburuetatik urrun dihardutela edo beste gai batzuk direla medio —hala nola eskubide ekonomikoa, sozialak, kulturalak, ingurumen arlokoak, edo eskubide sexualak eta ugaltzaileak—, prozesu horietatik baztertuta gera baitaitezke.

Herrialde batzuetan badira legeak eta/edo estatu mekanismoak arriskuan diren herritarrak artatzeko, hala nola giza eskubideen defendatzaileak, sindikalistak eta kazetariak. Hauxe gomendatzen diegu EBri eta estatu kideei:

11. Zaindu horrelako mekanismoek eta oinarrian dituzten arrisku-analisiek genero ikuspegia txertatuta dutela eta segurtasun eskemak erabakitzean giza eskubideen emakume defendatzaileei zuzenean kontsultatuta erabakitzen direla. Horrez gain, mekanismo horiek bermatu behar dute badirela langile emakumeak arrisku-analisi horiek egiteko eta behar bezala prestatuta daudela, orobat defendatzaileei eskaini behar zaie beren familiakideak, batez ere neska-mutikoak, arrisku-analisiaren erdigunean jartzea.

Eta aitortu behar da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak zeregin handia duela emakumeen eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko lana babestu eta indartzeko orduan, eta, orobat, giza eskubideak defendatzeko eskubidea; hori dela eta, hauxe eskatzen dugu EBren eta estatu kideen Nazioarteko Lankidetza tresnen harira:

12. Giza eskubideen emakume defendatzaileentzat trebakuntza aukerak eta diru sarreren sorkuntza diruzta ditzatela beste herrialdeetan, eta diruz lagundu ditzatela beren arteko sareak eta erakundeak sortzeko eta indartzeko ekimenak.

13 Ezar ditzatela erreferentzia puntuak gobernuei nazioarteko laguntza erretiratzeko noiz eta giza eskubideen urraketa nabarmenak gertatzen direnean.

Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) gobernuz kanpoko erakundea da, nazioartekoa eta 35 urte baino gehiagoko eskarmentua duena giza eskubideak babesten eta gatazketako eta gatazken ondoko bake-eremuak sortzen.

Gaur egun, PBIk taldeak dauzka lekuan bertan Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen, Mexikon, Kenian, Indonesian eta Nepalen.

Ezagutzen ez den eskubidea babesik gabeko eskubidea da.

Babestu gabeko eskubidea galdutako eskubidea da.

Brigadas Internacionales de Paz

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala